



ARGIA

AITA MARI ERRESKATE ONTZIA

Gizatasuna, Europaren oztopoen aurrean

26-31. orriak



#2.815 | 2023 / 03 / 05 | 4,00 €



**Lurrikarak Turkiaren
eraikuntza eredua
astindu du**

12 | NAZIOARTEA



**Kalera,
zaintza-sistema
iraultzearen alde**

36 | MARTXOAK 8




**"Disco honek
esperantza berreskuratu
nahi du politikoki"**

42 | OLOR

Euskara ofiziala ez den lekuetan,
euskara ikasten ari diren

85 LAGUNEK

jasoko dute  **ARGIA** doan



**ZUK ERE, LAGUNDU
EUSKARA ZABALTZEN
EGIN ZAITEZ  ARGIAkoa**
www.argia.eus/eginargiakoa

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: XIMENA BORRAZAS

Iritziak

- 21 | MAIALEN SOBRINO
- 22 | SONIA GONZÁLEZ
- 23 | ARKAITZ ZARRAGA
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | ENEKO GORRI

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTA:
BEATRIZ GONZÁLEZ
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO

42 | JOKIN AZPIAZU

elkarriketatu du Kepa Matxainek, Olor proiektuaren "Esperantza" diskoaren harira. Zorrotz mintzatu da musika munduaz, gauzak egiteko bere moduez, esperantzaren zentzuaz...

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Turkian lurrikarak 'low cost' hirigintzaren ondorioak azalerazi ditu

Urko Apaolaza

16 | PERTSONAIA | ML GOIBURU - M ALDAZ

"Aitonak esaten zuen erakusleihoa dendari bat gehiago zela"

Reyes Ilintxeta

26 | MIGRAZIOA | EUOPAKO POLITIKA

Ez itsasoan biziak salbatu, ez besteei salbatzen utzi

Maria Ortega

32 | KIROLA | KICKBOXING BORROKALARIA

"Umiltasun handia ematen dizu beste pertsona batekin gorputzez gorputz borrokatzeak"

Eñaut Agirrebengoa

36 | FEMINISMOA | MARTXOAK 8

Zaintza sistema feminismotik iraultzeko prozesuari hasiera emanen diote

Jenofa Berhokoirigoin

46 | KULTURA | JUTTA KOHETER

Irauten ez duten irudiak

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaita Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Bakea programatu

Gerra aspaldi ari zen egosten, Angela Merkelek berak abenduan argitu zigun bezala: Minskeko bake akordioak sortu ziren Ukraina berrarmatzeko denbora izateko. Gerra programatua zen, eta Errusiak amua irentsi zuen, inoiz hasi behar ez zuen ankerkeriaren ardura bere bizkarren gainean hartuta. Urtebete pasa denean munduko sheriffa izaten jarraitu nahi duen presidenteak arma gehiago agindu dio gerraren konponbide bakarra etsaia azpiratzea dela dioen presidenteari. Eta berriz esan behar dugu: gatazka armatuak negoziazioen bitartez konpondu behar dira. Eta diplomaziak huts egiten duenean... are eta elkarriketa gehiago, eta ez militarismoa sustatu, izan Leopard alemaniar ala Wagner mertzenario bertsioan. Irudian, Bilbon ostiralean protesta egin zuten "Errusiaren eraso eta NATOren politika espantsionista" gaitzesteko.

 MARISOL RAMIREZ / FOKU  AXIER LOPEZ



Jaurlaritzak luxuzko bidaiak oparitzen dizkie nazioarteko kazetariei, Euskadiko turismoa sustatzeko

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Asteburu pasa baterako, 1.800 euro inguruko bidaia bana ordaindu zien Eusko Jaurlaritzak Italiako sei kazetariari joan den azaroan. Iaz, guztira antzerako 26 talde-bidaia ordaindu zituen Jaurlaritzak; guztira, 145.000 euro.

Sei kazetari italiarrek azaroaren 4tik 7ra egin zuten oporraldia Euskal Autonomia Erkidegoan. Bilbora heldu ziren ostiralean, azaroaren 4an. Ur azpiko upategi Crusoe Treasure-n ardo- eta pintxo-dastaketak egin zituzten lehenik, Guggenheim museoa bisitatu zuten ondoren, eta Michelin izarra duen Atelier Etxanobe luxuzko jatetxean afaldu zuten gero, pertsonako 150 euro baino gehiago ordainduta diru publikoz.

Lehen eguneko antzerako plangintzarekin jarraitu zuten beste hiru egunetan. Balenciaga museoa bisitatu zuten Getarian, Zarautz ezagutu, Michelin izarra duen Donostiako Kokotxa jate-txean bazkaltzera eraman zituzten eta pintxo-dastaketarekin jarraitu, besteak beste. Eta Araban, berriz, Izki Golf-era joan ziren, eta Kanpetzuko Arrea! jate-

txean jan zuten. Gasteizen, Zabala jate-txean bazkaldu zuten.

Eltziegon, Marqués de Riscal upategi eta hotel entzutetsua bisitatu zuten, Arabako Errioxan (argazkian), eta Jaurlaritzak ordaindutako spa eta tratamendu-saioa izan zuten bertan. Luxuzko spa saioa izan zen, ardotan bustia. Spa eta afaria, orotara 2.000 euroko faktura izan zen, diru publikoz ordaindua.

Sei kazetariak turismo-kazetaritzan espezializatutako Italiako hedabide hauetatik zetozen: *Itinerari e Luoghi*, *Bell'Europa* aldizkaria eta haren argitaletxe Cairo Editore, Radio Popolare eta *Corriere della Sera* hedabide entzute-tsuaren *Dove* aldizkaria.

Asteburu hartako bidaiatik itzuli eta hilabete eskasera, Radio Popolarek ordutegibete inguruko saioa eskaini zion Euskal Autonomia Erkidegoko turismoari, "exotiko" gisa azalduz "bertako hizkuntza minorizatua", euskara. *Dove* aldizkariak bestalde, bidaia amaitu bezain pronto, Espainiako Estatuan "bisitatu beharreko hirien" zerrendatxo bat

Marqués de Riscal upategi eta hotel entzutetsua bisitatu zuten, eta luxuzko spa eta tratamendu-saioa izan zuten bertan. Orotara 2.000 euroko faktura izan zen, diru publikoz ordaindua

aurkeztu zuen eta tartean sartu zuen bai Donostia, bai Bilbo, baita Errioxa ere, Arabari erreferentzia eginez.

145.000 EURO

Euskadi Confidential Premium izena du programak eta "nazioartearekin harremanak estutzeko" helburua du Eusko Jaurlaritzaren Turismo sailaren arabera, "Euskadirekin harremana familiarizatzeko". 2022an 145.000 euro bideratu zituzten prentsa-bidaia horietara. Iaz, 26 "press-trip" edo prentsa-bidaia antolatu ziren, horietatik hamabi Espainiako eta Frantziako Estatuetatik etorri ziren, eta besteak Alemania, Herbehereak, Norvegia, AEBak eta Filipinetatik, esaterako.

Espainiako Turismo Bulegoarekin lankidetzan antolatzen dira halako bidaiak, eta bulegoak berak aholkatzen du zein hedabide gonbidatu.

Javier Hurtado Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuaren arabera, "Euskadi sustatzeko itzulketa erakargarria izan dezaketen hedabideak gonbidatzen dira, beren profilagatik, tiradagatik edo merkatu interesgarrian sartzeagatik". ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Gerra



UXUE APAOLAZA LARREA


Prezioak igo direlako, “dena igo da”, horregatik gogoratzen gara gerraz. Ez du ematen, beraz, gu gerran gaudenik. Baina denok sentitzen dugu gero eta gertuago, hori pentsatzeko hitzak ematen baitzaizkigu: “Mundu Gerra”, “arma nuklearrak”... eta agintari ero bat. Gerraren mehatxua han exotiko hotz batean kokatu dugu, handik iritsiko zaigu, beraz, gizon bakar baten delirioen erruz. Konponbideak erraza dirudi, gizon hori gelditu behar dugu; baina, lasai, gure partez egingo baitute gerra, sos batzuen truke, armagintzak behar dituenak. Nor ez dago prest sos horiek emateko?

“Zer dio Errusiako propagandak Ukrainako gerrari buruz?”, “Putin, bere propagandaren biktima”, “Europar Batasunak Errusiako propaganda kolpatu nahi du, lau telebista kate kenduta”... Zertarako balio dit niri Errusiak propaganda erabiltzen duela jakiteak? Propaganda hori ez zait iristen, ez dago ni irensteko arriskurik. Ni hemengoen propagandak irentsiko nau. Erraza daukate, gehienetan, iruditeria eta manerak konpartitzen ditugu, Mendebaldekoak. Non daude herritarrei propaganda deszifratzen lagunduko dieten historialariak? Bagenekien historia ikasteak honetarako balio duela? Bagenekien zerbaitegatik desagertzen ari direla jakintza batzuk? Institutuetan ez dute Bigarren Mundu Gerrako adibiderik behar propagandaren gaia lantzeko; nola lortu dute Estatu Batuen erabaki eta interesei aurpegi errusiarra jar diezaiegun, adibidez? Propaganda deszifratzen jakingo bagenu, agian, kalean geundeke zentimo bakar bat ere, tiratxinas bakar bat ere bidal ez dadin gure moduko herritarrek hiltzeko. Manerak manera, ezin du hain zaila izan ikustea Biden eta Zelenskyren interesa ez dela ez bakea, ez demokrazia, ez justizia, ez herritar arrunten bizitza. Etsai boteretsuak ditugu, fanatiko arriskutsuak dira, baina ez daude Errusian. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Txina

Txinak Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerra eteteko bake plana aurkeztu zuen joan den ostiralean, Errusiak Ukraina inbaditu zuela urtebete bete zenean. AEBek, berriz, armetan 500 milioi gehiago agindu dizkiote Volodimir Zelensky Ukrainako lehendakariari.

Nuklearrak

Errusiak AEBekin arma nuklearrak kontrolatzeko zuen ituna moztu du. Putinek adierazi du “antzerki hutsa” dela akordio hori. Mendebaldeari egotzi dio gerraren erantzule izatea, eta Errusia soilik “indarra erabiltzen” ari dela “defendatzeko”.

Adierazpen askatasuna

Urtarrilaren 14an GKSko pankarta bat, ikurrinak eta Nafarroako bandera kendu zituen Espainiako Poliziak Sadarren. Orain, kargutik kendu dute Osasunako Segurtasun zuzendaria. Klubeko Zuzendaritza Bartzordeak adierazi du “oso larria” izan zela gertatutakoa.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Bio



ULA IRURETAGOIENA

Eko-krisiak bio-zentrismoa ekarri du mahai-hizketaldira. Gizateriaren iraungitze posibleaz hitz egiten den garai honetan, “nola iritsi gara honaino?” galdera erretorikoa egiteak zentzua hartzen du. Eta erantzun posible bat, gizakiak ingurune naturala ustiatzeko leku bezala ulertu izana da. Androzentrismoa deitzen zaio natura gure erabilerarako tresna dela ulertzeko modu honi. Horregatik ulertzen dugu gu eta natura gauza desberdinak garela, gainontzeko izaki bizidunen gainetik gaudela eta beraz gure bizimodua bizirauteko beste espezieekin bukatzea zilegi dela, eta gainera, gainontzeko izaki bizidunen artean, inteligenteenak garela eta ahalguztidunak.

Gizakia eta ingurune naturala ulertzeko beste modu batzuk azkar zabaltzen ari dira, ingurumen krisiari irtenbidea bilatzeko edo besterik ez bada, bizi dugun egoerari zentzua topatzeko. Bide honeztatik, Bilboko Azkuna Zentroan “Zientzia Frikzioa. Bizitza espezie lagunen artean” erakusketak naturarekin harremantzeko beste helduleku bat eskaini du. Maria Ptqk-ren komisariotzapean, zientzietako eta praktika artistikoetako lanak jaso dira, gure planetan gertatzen den bizitza elkarrekin harremantzen diren izakien arteko sare bat bezala azaltzen dutenak, aldakorra; biologia taxonomia beste bat. Gizakia beste espezie askoren artean ko-bizitzan dagoenean, indibiduo eta autonomia kontzeptuek zentzua galtzen dute. Apaltasun leku bat berreskuratzen da, non bizitzarako ezinbesteko diren espezie, organismo eta mikroorganismoak begira jartzen gaituen, denen balioaz jabetuz eta elkarbizitza sinbiotikoa bakoitzaren papera goraipatzu, bestelako bizitza formak deskubrituz. Dikotomiak errealitatea azaltzeko gaitasuna galtzen du, pluralitateak irabaziz.

Kosmopolisioak kultura bat eraikitzen du, eta era berean, kulturak lurraldearen arkitektura bat. Horregatik biozentrismoaren biraketak pentsamendu eta ekintza esparru zabaletan eragina izan lezake. Iraulketarako balioko ez balu, etorkizuna irudikatzen izan dadila. ●

ANALISIA



ALEAUS

Bi logika kontrajarri, baina hiztegi bera

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Klima larrialdian aitzina egin ahala geroz eta bortitzagoa eta konplexuagoa bihurtzen ari zait erronka ekologikoarena. Eta ez dit bakea ekarri *Fin du monde et petits fours: Les ultra-riches face à la crise climatique* (“Munduaren bukaera eta ‘petits fours’-ak: ultra-aberatsak krisi klimatikoaren parean”) liburuak dakarren tesiak, zeinak dioten klimaren auzia bideratzeko estrategiarekin dabilatzala ultra-aberatsak. Alderantziz, konplexutasuna are konplexuago eta bortizkeria are bortitzago bihurtu zaizkit. Har ditzagun azken egunetako bi aldaketak politiko. Bata, segurtasun nuklearraren bermatzaile IRSN egitura desagiteko Frantziako Gobernuak hartu erabakia –paraleloki, errektore nuklear gehiago eraikitzeko eta orain arteko 56 errektoreen biziraupena luzatzeko erabakiak plazaratuz–. Karbono neutritasuna lortzeko baldintza omen da nuklearraren garapena; trantsizio ekologikoaren alde doan energia berdetzat daukate. Bestea, kasu kasu, oinarrian erregai fosilak –petrolio, karbono eta gasa– dituzten ekoizpenei ere “hidrogeno berdea” izendapena zabaltzeko Europako Batzordeak duen asmoa. Funtsean, nuklearra ere energia berdeetan sailkatzea erabaki zuen iaz. Trantsizio ekologikorako dirulaguntzak errezibitzeko eta aurpegi garbiketarako ongi etorritako aldaketak dira boteredun klimatizidentzako.

Erronka ekologikoa dorpetzen digu nozio eta helburuen lapurreta horrek: “Energia berdea”, “trantsizio ekologikoa”, “klimaren aldeko borroka”... Hitz klabeak berenganatzen dabilta, azkenean ezer gutxi aldatzeko. Ekologistek ariketa zailtzen die, batez ere munduko aberatsen eskuetan diren sare sozialetatik eta burtsan salerositako akzioen bidean finantzaturiko *mainstream* komunikabideetatik informatzen baldin bada herritarra, horiek ez dutelako ñabardura azpimarratuko.

Baina, nozio horien lapurreta salatzeraz eta termino horien funtsezko mamia oroitarazteraz datorren mugimendua ere loratuz doa. Hor dugu Euskal Herria Bizirik plataforma berria. “Natura benetan babesteko duen politika bat eskatzen dugu, eta gure habitata babesteko, inbertitzaileen diru goseari men egin gabe”. “Benetan” hitza zehaztu beharra ere bada zerbait... baina horretan gara, alde guzietatik entzun dugulako “klimaren aldeko” nahikaria. Kontua da bi kontrako logika daudela hiztegi beraren pean: bata diru-goseak bideraturikoa eta bestea amaluraren defentsak. ●

32

elizgizon identifikatu ditu Bilboko Elizbarrutiak, sexu abusuak egin zituztenak, baina ez du izenik eman.

Eliza barruan izandako sexu abusuak ikertu eta adingabeak babesteko Bilboko Elizbarrutiak sorturiko batzordeak jakinarazi du.

14,2 milioi

euro bideratuko dituzte EAEko instituzio publikoek Frantziako Tourrera. Diru gehien Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak jarriko dute: 3,2na milioi euro.

6.200

euro gehiago kobratzen dute urtean gizonak, emakumeekin alderatuta (alegia, %23,5 gehiago), LAB eta Ipar Hegoa Fundazioak Hego Euskal Herriko soldata arrakalari buruz egindako azterketaren arabera.

“Bilbo hiri arrotza da haurrentzat”



AITZIBER SAGARMÍNAGA

Atxuriko eskolako gurasoa da Sagarmínaga. Eskola inguruko espazio falta, segurtasun-eza eta autoen kutsadura eta zarata salatu dute gurasoek.

ARGIA.EUS (2023-02-21)

“OSASUNGINTZA PUBLIKOA PRIBATIZATZEN ETA DESEGITEN ARI DIRA, ETA EZ DUGU ONARTUKO”

ENEKO PASCUAL, LAB

Milaka lagun bildu dira Donostia, Bilbo eta Gasteizko manifestazioetan, Osakidetzaen egoera salatzen.

2023-02-25

“Ametsa zirudiena politika errealista da: lau eguneko lan-asteak lan eta familia bizimodu hobea dakar pertsona askorentzat”

CAMBRIDGE UNIBERTSITATEA

Soldatak mantenduz, lau egunera murriztu dute lan-astea Britainia Handiko 61 enpresak, sei hilabetez. Orain arteko esperientzia piloturik handienaren emaitzak argitaratu berri ditu Cambridgek.

ARGIA.EUS (2023-02-22)



Bitartekoan dauden arazoak



DIANA FRANCO

Beharbada noizbait irakurri duzu Marshal McLuhan-en "bitartekoa mezua da" esaldia. Honekin McLuhan jaunak esaten zuen mezua txertatzen den bitartekoa mezuaren parte bilakatzen dela. Bitartekoarekin jada mezua ulertzen dela. Teknologiarekin antzeko fenomenoak dugu, dugu teknologia dugun gizartearen isla baita.

Gizakion arteko interakzioak modu ezberdinetan ematen dira, pertsonen duten izaera eta izan dituzten aukeren eta bizipenen arabera. Pertsonen arteko interakzioak onuragarriak dira gehienetan, eta sorkuntzarako, elkarlanean eta elkartzaren iturri amai-gabea. Baina zenbaitetan, bortizkeria, bazterkeria eta mendekotasuna dakartzate. Teknologiaekin interakzio hauek bitartekatzen joan gara azken hamarkadetan, eta pertsonen arteko interakzioek dakartzaten onurak eta arazoak teknologiaekin modu berrietan eman daitezkeela ikasi dugu. Horrela, harremanen digitalizazioak bortizkeriaren digitalizazioa ekarri du, kontsumoaren digitalizazioak mendekotasunen digitalizazioa, eta prozesuen digitalizazioak bazterkeria areagotu du. Arazo zaharrak bitarteko berrietan.

McLuhane esaldia berreskuratuz, "bitartekoa mezua da" hitzek adierazten digute bitartekoan eragin dezakegula, hau da, bitartekoak baduela sortzen diren arazoetan zer esana, eta bitartekoan eragiteak zenbait arazo zuzentzea ekar dezakeela. Adibidez, sare sozialen diseinuak eta algoritmia zuzendu daitezke mendekotasuna eta bortizkeria euren baitan gutxitzeko. Bitartekoak sortzen dituen arazoak zuzentzen ikas dezakegu. Ikasiko al dugu, ordea, hasieratik arazoak erreproduzitu ez dituzten teknologia sortzen? ●



Tunisia ez ei da Afrika

AXIER LOPEZ

Tunisiako hiriburuan ehunka pertsona kalera atera dira larunbatean, arrazakeriaren aurka eta "gorroto kanpaina" pairatzen ari diren migratzaileen babesean. Pizgarria Kais Saied presidentearen adierazpenak izan dira, Tunisiara heldu diren Saharaz hegoaldeko pertsonak "mehatxutzat" jo ditu eta.

"Legez kanpoko immigrazio uholdeen aitortu gabeko helburua da Tunisia herrialde afrikar huts bilakatzea, nazio arabiar eta islamikoekin inolako harremanik gabe utzita. Mende hasieratik akordio kriminala izan da Tunisiaren osuera demografikoa aldarazteko asmoz. Alderdi batzuek diru kopuru handiak jaso zituzten 2011z geroztik [Tunisiako Iraultzaren ondorengo urtea, Udaberri Arabiarrari hasiera eman ziona], Saharaz hegoaldeko Afrikako etorkin irregularrak Tunisian finkatzeko", zioen presidentek eskuindar nazionalistak.

Migratzaileak talde antolatatu, ikusezin eta exogeno gisa aurkeztuta, tunisiarren egiazko "idiosinkrasia" mehatxupean dagoela aditzera eman nahi du. Europan ere ezaguna zaigu diskurtso xenofobo hori, alderdi neofaxistek ez ezik, Europako Batasuneko segurtasun politika goi-ordezkarik Josep Borrellen ere hauspotu baitu: "Europa lorategia da eta munduaren gainerakoa oihana", zioen urrian. Bada Saieden adierazpenak txalotu dituenik, tartean Frantziako azken hauteskundeetan presidentegai izan-

dako Eric Zemmour ultraeskuindarra: "Tunisiak premiazko neurriak hartu nahi ditu bere herritarrak babesteko. Zeren zain gaude Ordezkapen Handiaren aurka borrokatzeko?".

Tunisia funtsezko abiapuntua da Afrikatik Europara iritsi nahi duten pertsonentzat. Nazio Batuen arabera, munduko migrazio-ibilbiderik hilgarriena da. Sahara azpiko herrialde askotako milaka lagun lanbide prekarioetan aritzen da Tunisian, Italia-ra heltzeko beharrezko duten dirua lortzeko.

Afrikako Batasunak Saieden adierazpenak gaitzetsi ditu eta "gorroto diskurtsoak" alboratzeko dei egin dio. Tunisiako giza eskubideen aldeko eta oposizioko taldeek salatu dutenez, Saidek arrazismoa hauspotu du "tunisiarrak herrialdearen benetako arazoetatik aldentzeko". Tunisiako langileen sindikatu garrantzitsuenak den Langileen Batasun Orokorra (UGTT) ildo beretik mintzo da. Sindikatua- ren aurkako jazarpen politikoa salatu dute: "Gobernuak azken hauteskunde legegileetan izandako porrota ezkutatu nahi du, hamar boto-emailetik batek baino ez zuen parte hartu".

Tunisiako agintariak presidentearen aurkako oposizio eta sektore kritikoen aurkako errepresioa areagotu dutela dioten ahotsak ugaritu dira azken hilabeteotan. Are gehiago 2021eko uztailean, Kais Saiedek Parlamentua bertan behera utzi eta Gobernu desegin zuenetik. ●

Azterketak euskaraz aldarri

📷 EUSKAL IRRATIAK

AKITANIA BERRIA / Azterketak euskaraz egitea aldarrikatzeko Bordeleko errektoretzan kateatu dira Seaskako langile eta gurasoak. Frantziako Hezkuntza Ministerioak hizkuntza gutxituekiko eta bereziki euskararekiko duen politika "baztertzailea" salatzen egin dute ekintza. Frantziako Polizia lekura agertu da eta Seaskako kideek ekintzaren arrazoiak esplikatu dizkiete. Bi ordu eta gero ekintza amaitutzat eman dute.



Jokoa

Gora egin du jokoa aritzen den emakumeen kopuruak EAEn, ia gizonekin berdintzeraino. Laguntza eskatzen dutenak, baina, gizonezkoak dira gehienbat. Gero eta jende gehiagok ikusten du begi onez jokoa, Euskal Behatokiaren txostenak dioenez.

Herritarren pobretzea

Oinarrizko elikagaiak %15,4 garestitu dira urtebetean Espainiako Estatuan eta Kontsumo Prezioen Indizea %5,9ra igo da berriz ere. Espainiako Gobernuak ekoizle eta saltzaile handiekin bilatu nahi ditu irtenbideak, baina orain arte ez dira ados jarri.

Metroa

Donostiako metroaren lanek eraikin batean eragindako pitzadura salatu du Satorralaiak. Donostiako Zubietako kaleko eraikin baten patioan agertutako arrakala "itzel" gisa deskribatu du mugimenduak. Lanak hasi zirenetik bost urte igaro dira.

TURKIAN LURRIKARAK 'LOW COST' HIRIGINTZAREN ONDORIOAK AZALERAZI DITU

Anatoliako failak Kurdistanen, Turkian eta Sirian eragindako lurrikarak goitik behera jausi ditu milaka etxebizitza, eta agerian geratu da Recep Tayyip Erdoganaren gobernuaren eta eraikuntza sektorearen artean dagoen ustelkeria. Baina baita munduan nagusitzen ari den eredu baten ahultasuna ere: higiezinaren espekulazioan eta lan-esklabotzan oinarrituta, kapitalaren zerbitzura dagoen hirigintza merkearena.

URKO APAOLAZA AVILA

Turkiako TRT irrati telebista publikoak, otsailaren 6an lurrikara hilgarria gertatu eta astebetera zabaldu zuen berria: poliziak Nazmi Tosun eraikuntza inspektorea atxilotu zuen,aldi berean Emre Apartament-eko ordezkaria bazena, lurra pitzatzerakoan behera amildutako milaka urbanizazioetako bat. Ordurako beste hainbat kontratista atxilotuak zituen Recep Tayyip Erdoganaren gobernuak eta, kate publikoak zioenez, eraikuntza arloko 33 lagunen atzetik zebilen. Gerora jakin zen eraikuntza arloko 113 pertsona baino gehiagoren zerrenda zuela prestatuta poliziak.

Kurdistanen, Turkia eta Siria arteko mugan, Dîlok hiritik gertu –turkieraz mendebaldarrok Giziantep bezala

ezagutzen duguna– izandako Richter eskalako 7,5 magnitudeko lurrikarak milaka pertsona lurperatu ditu adreilu eta hormigoi artean. Turkiako iturri ofizialak kontuan edukiz gero, lerrook idazten ari garen unean gutxienez 41.000 dira hildakoak, baina irakurleak astekari hau jasotzen duenerako seguruenik zifra hori handiagoa izango da. Sirian, aldiz, sekula ez dugu jakingo hondamendia norainokoa izan den.

Hondakinak kentzeko lanek aurrera egin eta egunak igaro ahala, herritarren haserre eta kexak handitu dira, Turkiako Gobernuak laguntza bidaltzeko izandako moteltasunagatik –lurrikarak kaltetutako eremu handi bat Kurdistanen kokatzeak ere zerikusi zuzena izan du zenbait tokitan erreskateak eragozteko jarrera horrekin, hainbat hedabide

kurduk salatu dutenez–. Baina haserre handitu baizik ez da egin ikusirik erorritako eraikin ugari noiz izan ziren eraikiak, zein egoeratan zeuden, eta turkiar gobernuak nola kudeatu duen orokorrean hirigintzaren gaia eremu sismiko hain bortitzean. Ondorioa gero eta garbiagoa da: ez da istripua izan, milaka heriotza saihestu zitezkeen.

BBC britainiar telebista kateko Tom Bateman eta Laura Gozi korrespontsalak izan dira lehenengotakoak kudeaketaren inguruko zalantza hori zabaltzen. “Urte luzez, adituek ohartarazi dute Turkian eraikin berri ugari ez direla seguruak, ustelkeria endemikoaren eta gobernuaren politiken ondorioz”, diote kazetariak. Azaldu dutenez, politika horiek ekarri dute Turkiako Gobernuak ez ikusia egin eta kontratistek lurrikaren





AFP / GETTY IMAGES

BURBUILA URBANISTIKOA

Turkian 1999tik eraikitako etxebizitzan herenak ez du lurrikaren kontrako araudia betetzen eta gobernuaren "amnistia" jaso dute. Otsailaren 6ko seismoarekin hondoratu dira asko.

kontrako arauak urratzea: "Milaka eraikin hondoratu dira lurrikararekin, eta zalantza sortu da, natur hondamendiaren kalteak handitu ote dituen gizakiaren eskuak".

BBCk froga grafikoak ere eskaintzen ditu bere webgunean, *Turkey earthquake: Why did so many buildings collapse?* ("Turkiako lurrikara: Zergatik ondoratu dira hainbeste eraikin?") goiburupean. Ikus daitezke, esaterako, Iskenderun hiriko dorre handi baten bi argazki, eskuintekoa erabat birrindua, ezkerrekoa berri-berri, 2019an inauguratu zen moduan. BBCk egiaztatu du biak eraikin bera direla eta ezkerrekoa eraikuntza-enpresaren publizitate kanpaina batena zela, araudia zorrotz betetzen zuela ziurtatzeko egina.

**Eraikuntza politiketan
dituen erantzukizun
larriak ezkutatu nahi ditu
Turkiako presidentek;
hor kokatu behar dira
herritarren kontrako
mehatxuak eta
kontratisten atxilotzeak**

IZMIT 1999: ARAUAK ETA AMNISTIAK

Lurrikaren kontrako hirigintza araudia asko zorroztu zen 1999an Istanbuletik gertu dagoen Izmit hirian izandako seismoaren ondoren. Ordukoan 17.000 lagun hil ziren eta Süleyman Demirel presidentek hauteskundeak galdu zituen ondoren. Zerga berezi bat ere sortu zuten eraikuntza seguruagoak egiteko. Baina burbuila urbanistikoaren aparretan –eta geologo nahiz arkitektoen gomendioei muzin eginda–, Turkian geroztik eraikitako etxebizitza askok ez dituzte arau horiek bete, beste asko "amnistiatuak" izan dira, eta zerga horren diruarekin zer gertatu den inork ez daki.

Erdogan orain aurkitzen den ataka ulertu nahi duenak irakur dezake

Ekialde Hurbilean aditua den Manuel Martorell historialari nafarrak *Diario de Navarra* egunkarian idatzitako *Turquia: lo que esconde el terremoto* ("Turkia: lurrikarak ezkutatzen duena") artikulua. Martorellek gogorarazi du duela hiru urte bi milioi etxebizitzari onartu zitzaiola amnistia delako hori: "Zigorra saihesteko, jabeek diru kopuru bat eman behar zuten eta eraikina bere horretan geratzen zen". Turkiako eraikinen erdiak ez du araudia betetzen, Erdogan boterean izan den hoge urteotan eraikitakoen herena barne. Ingeniarien Kolegioko presidente Cemal Gokce-ren arabera, soilik Istanbulen milioika dira egoera horretan dauden etxebizitzak.

"Orain, ezkutatu nahi ditu eraikuntzako bere politikekin dituen erantzukizun larriak, eta ohikoa den moduan, tragedia honetatik errentagarritasun politiko handiena ateratzeko neurriak hartzen ari da", dio historialariak. Hor kokatu behar dira sare sozialen kontrola, kexa azaldu duten herritarren kontrako mehatxuak, eta kontratisten atxilotzeak: "Erdoganek badaki krisi honen kudeaketak bi hamarkadaz eraikitzen joan den bere proiektu politikoa hondoratu dezakeela, 1999ko seismoan gertatu bezala. Ez da beraz zentzugabea hauteskundeak atzeratzea, hondamendi politikoa saihesteko".

Hirigintza merkearen hedapenean oinarritu du Turkiak bere barne garapena; eta orain, eraikuntzako eliteak atzerrira begira jarrita daude, batez ere Afrikara

HIRIGINTZA MERKEAREN ESPORTAZIOA

Erregimen presidentzialista gogorrarekin agintzeaz gain, hirigintza merkearen hedapenean oinarritu du Erdoganek Turkiako garapena, eta bide batez, eraikuntzako eliteen leialtasuna eskuratu du. Elite horiek, hain zuzen, atzerrira begira jarrita daude aspaldi: munduko 250 enpresa kontratista handien artean 40 turkiarrak dira, *The Economist* astekari ospetsuak emandako datuen arabera.

Batez ere Afrikan sartu du eskua Turkiak, bere kokapen geoestrategikoaz baliatuta. Astekariak *Turkish builders are thriving in Africa* ("Turkiar eraikitzaileak egarri dira Afrikan") artikuluan dioenez, Afrikan txinatar inbertsiogileekin lehiatzea zaila duenez, *low cost* eraikuntza eredua esportatu du, azkartasunean eta tokian tokiko lan-esku merkean oinarriturik. Erakustazokak Ekuatore Ginean eta Kongoko Errepublikan Demokratikoan, aireportuak Ginea Bissaun, Nigerren eta Sierra Leonan... kontaezinak dira eskuratu dituzten lanak. Baina seguruenik Senegalen dauka proiektu anbiziotsuena Turkiak.

ZER DARAMA TURKIAK DAKARRERA?

Qatarren 2022ko Munduko Futbol Koparen harira eraikuntzako langileen artean izandako desmasiak ezagunak zaizkigu. Ez hainbeste Dakarren gertatzen ari direnak. Senegalgo hiriburutik 30 kilometro eskasera ezerezetik sortzen ari dira Diamniadio izeneko hiria, antzeko moduak erabiliz. Dakarrek duen "pila-keta" arintzeko omen: *Lake City* ere deitua -laku handi baten inguruan dagoelako-, etxe-orratz askoko finantza gunea, unibertsitate campusak eta industria parkea izango ditu, baita 350.000 laguntzako etxebizitzak ere. Denera 2.000

DIAMNIADIO Dakarretik 30 kilometroara eraikitzen ari diren 350.000 lagunentzako hiri futurista, 2035 urtean bukatua behar duena. Turkiako multinazionalak bete-betean daude proiektuan sartuta, eta txinatar eraikitzaileekiko lehiakorrak izateko obra azkarrak hitzeman eta tokiko lan-esku merkea erabiltzen dute.





ESPLOTAZIOA Ezkerrean, langile multzoa etxola kaskarretan bizitzen, Senegalen Dakar inguruan eraikuntza berriak egiten ari diren tokian, AFP agentziak bideoz harturiko irudi batean. Eskuinean, Turkiako Iskenderun hirian ustez segurua zen eraikin berri baten lehengo eta oraingo irudiak.

milioi dolar kostako du hiri futurista egiteak eta 2035erako amaitua egotea espero da.

Iaz estreinatu zuten Abdoulaye Wade estadio olinpikoa, puntako teknologiak erabiltzen dituen kirol instalakuntza, 50.000 lagunentzako gaitasunarekin. Inaugurazio ekitaldian izan zen gonbidatu berezi Tayyip Erdogan bera; ez alferrik, eraikina oso osorik egin baitu Summa turkiar multinazional botere-tsuak. Nazioarteko aireportua eta beste makina bat azpiegitura ere Turkiako enpresak ari dira eraikitzen. Macky Sall presidente senegaldarrak nabarmendu du Turkiarekin duten harremana “zintzoa bezain aberatsa” dela. Baina Joseba Tapiak kantatuko lukeen bezala, zer drama Turkiak Dakarrera?

La Vanguardia egunkarian Marie Flament kazetariak erakutsi digu nolako baldintzatan ari diren Sierra Leona, Nigeria nahiz Gineako migratzaileak Diamniadio eraikitzen: poliziak birrindutako etxola kaskarretan ostatu harturik, lane-

Tayyip Erdogan Dakarreko estadio olinpiko berriaren inaugurazioan izan zen; ez alferrik, eraikina oso osorik egin baitu Summa turkiar multinazionalak

ra joateko hiru orduko ibilaldiak eginez, zazpi eguneko lan-asteak, eta egunean dolar apur batzuk besterik ez kobratzen. *AFP* frantziar agentziak hamar langileri

egindako elkarrizketak eta argazkiak izan ditu iturri Flamentek *Diamniadio, la nueva ciudad de Senegal que se alza en condiciones de “esclavitud”* (“Diamniadio, ‘esklabotza’ baldintzetan eraikitzen ari den Senegalgo hiri berria”) erreportajerako. “Egunero garrasi egin eta jotzen gaituzte”, dio 26 urteko Ibrahimek –pseudonimoak erabili ditu *AFP*-ko fotokazetariak-. Eta langileak gogaituta kolpea itzultzen badu... “Despeditua. Beraz, jotzen zaituztenean ezin duzu ezer egin, isildu eta lanean jarraitu baizik”.

Ekonomia kapitalistak bere burua elikatzen du eraikuntzarekin, eta merke bada hobe. Berdin dio herritarrak adreilu artean lurperatu edo langileak xukatzen baditu ere. Turkia dizipulu abila bilakatu da zeregin horretan eta Afrikan nahiz Asian luzatu ditu besoak, baita gertuago ere... Oraintsu jakin dugu Limak turkiar multinazionalak birmoldutako duela hainbeste jende miresten duen Europako katedral bat: Bartzelonako Camp Nou estadioa. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

María Luisa Goiburu eta Marisa Aldaz Goiburu

BETIKO MERKATARIAK



AITONAK ESATEN ZUEN ERAKUSLEIHOA DENDARI BAT GEHIAGO ZELA



Agoizko Goiburu saltokiak 200 urte bete ditu. Bi mende horietan dendaz gain beste hamaika zerbitzu eskaini izan dizkio familia honek herriko eta inguruko jendeari: errota, zinema, taxia, herriz herriko salmenta... Hau ez da balentria izugarrien istorio bat, tokiko eta familiako saltoki txiki baten ahalegin handiarena baizik, orain liburu eder batean bildu dutena. 94 urteko María Luisarekin eta Marisa alabarekin mintzatu gara iraganaz eta komertzio txikien etorkizun ezaz.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Nola hasi zen familiaren negozioa?

Marisa: Ni bosgarren belaunaldia naiz. Nire herenaitona Nicolás Goiburuk 1820an herrian zabaldu zuten Arrizabala izeneko saltokian lan egin zuen. Txokolatea, gozokiak eta kandelak egin eta saltzen zituzten. Gero, 1856an, berak eta Rita Orbaiz emazteak gaur egun denda dagoen etxea erosi zuten eta han Goiburu denda ireki. Hori ere txokolategia eta kandelategia izan zen hasieran. Gozokiak eta kandelak beti oso lotuak izan dira, erleen argizaria kandelak egiteko eta ezta gozokietarako erabiltzen zirelako. Lapiko bertuetan desegiten zuten argizaria eta ezta, ongi garbitu ondoren. Agoitzera 1893an iritsi zen argindarra kaleetara, horregatik duela

gutxira arte herrietan eta elizetan oso beharrezkoak ziren kandelak eta kandelagile asko zegoen.

Rita 44 urterekin eta sei seme-alabekin alargun gelditu zen eta bakarrik aurrera eraman behar izan zuen negozioa. Garai onak ziren eta txokolatea ehotzeko ur-errota txiki bat eta lurrak erosi zituen. Ritaren baratzean, jendeak oraindik izen horrekin ezagutzen duena, labore-lurrak, ardantzeak, fruta arbolak eta makalak zituen eta hori dela eta, dendan hasi ziren janari gehiago saltzen: irina, fruta barazkiak, ardoa... Ardantze asko zegoen inguruan. Agoitzen 60 upategi izatera iritsi ziren. Etxe batzuentzat barne kontsumorako egiten zuten ardoa eta beste batzuetan saltzeko ere bai.

María Luisa: Kandlekin urte luzez jarraitu zuen gure familiak. Nire aita izan zen azken kandelagilea hemen Agoitzen. Lantegitik izugarrizko buruko minarekin ateratzen zen beti, oso toxikoa zelako. Kandela arruntak, kandela handiak, elizako hilobien gainean jartzen ziren eskubilduak, eta bataio eta jaunartzeetarako kandela apaindu ederrak egin ohi zituen. Oso esku ona zeukan aita zenak pintza txiki batzuekin argizaria kizkurtzeko. Gurasoak beti ari ziren pentsatzen zer gehiago egin zezaketen dendan saltzeko. Amak eta biok, adibidez, marmelada egiten genuen. Emakumeak haien katiluekin etortzen ziren eta guk ontziaren pisua deskontatu eta betetzen genuen.



María Luisa Goiburu Okiñena eta Marisa Aldaz Goiburu

AGOITZ



Ama-alaba dira. María Luisak 94 urte ditu eta Marisak 59. Agoizko Goiburu dendako nagusiak dira. 2022an negozioaren 200. urteurrena ospatu dute. Dendaren garai bateko itxura berreskuratuta, bisita gidatuak egin zituzten eta *Goiburu 1820-2020* liburua argitara eman dute Karekin Kultura Agoizko enpresarekin.

Gaur egunekoa baino salerosketa jasangarriagoa...

Marisa: Bai, jakina. Lermaren arabera ere saltzen zen argizaria, adibidez. Horrek esan nahi du jendeak kandela handiak eramaten zituela biatikoan edo prozesioetan ateratzeko, baina bakarrik ordaintzen zutela kontsumitzen zuten argizaria. Horretarako, eramane aurretik eta itzulitakoan pisatzen ziren. Gainera, gero haurrek lurrera eroritako argizaria biltzen zuten dendara atzera ekartzeko goxoki batzuen truke. Argizari hori lapikora botatzen zen berriz erabiltzeko. Trukea ere ohikoa zen. 1839ko faktura batean, esate baterako, agertzen da zurgin lan batzuk txokolatearen truke ordaindu zirela.

Bezeroekiko harremana konfiantzan oinarritzen zen. Gutun batean, adibidez, bezero bati esaten zaio: "Bidalitzen dizut gustuko zenuen oihalezko pieza. Moztu behar duzuna eta gero ordainduko didazu". Askotan Iruñetik gauza bereziak ekartzeko agintzen ziguten, hala nola jaunartzeetarako arrosarioak. Konfiantza berekin funtzionatzen dugu gaur egun ere.

Bigarren belaunaldiaren garaia ilunagoa izan zen. Zergatik?

Marisa: Ritaren seme batek, Tomasek, nire birraitonak, hartu zuen denda. Margarita Irigoienekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten, baina Tomas hil zen Margaritak 38 baino ez zituela. Oso emakume ekintzailea zen eta bera agertzen da, adibidez, notario-dokumentu batean bazkide gisa herrian egin zen irin-erota eta lantegiaren sorreran, Ortiz familiarekin batera. Toki guztietan gizonen izenak baizik ez dira aipatzen lantegi horren inguruan, baina Margarita sortzaileetako bat izan zen, guk ditugun agiriak erakusten duten bezala.

Hala ere, arazo ekonomiko latzak izan zituen. El Irati S.A. zerrategiko presa eraiki ondoren, esate baterako, uholde latzak izan ziren, bere baratzeari kalte izugarriak eragin zizkiontenak. Urte gogorak izan ziren eta negozioak porrot egin zuen.

Margarita 1926an hil zenean, Juan semeak, nire aitonak, etxea hipotekatu behar izan zuen ehorzketa or-

daintzeko eta gero Ritaren baratzea ere saldu behar izan zuten. Handik aurrera dena izan zen lan egitea etxea berreskuratu ahal izateko.

Nola lortu zuten berriro negozioa altxatzea?

Marisa: Lan ikaragarria eginez. Aitona Juan Eneritz herriko Dolores Okiñenarekin ezkondu zen eta doteak lagundu zien berriz zerotik hasteko. Une gogorak izan ziren, baina irudimenera jo zuten, negozio eta bide berriak sortu zituzten, beti jendeari zerbitzua ematera bideratuak.

Ibilgailu bat erosi zuen eta taxi zerbitzua eskaintzen hasi ziren. Hori bera erabiltzen zuten ere herriz-herriko salmenta egiteko. Aezkoa eta Artzibarrereko herrietara joaten ziren lanerako prakak, barneko arropa, elikagaiak eta eskatzen zizkieten gauzak guztiak saltzera. 1933an zinema areto bat zabaldu zuten Merkatu plazan, lehen udaletxea zen eraikinean. 200 eserleku zituen eta bertan pelikulez gain, zarzuelak eta antzerki saioak ematen



Gure familiarena emakume indartsuen eta gizon onen historia da"

zituzten. Sute batengatik itxi behar izan zuten 1949an.

Han ere, sotoan, upategia zuten. Goiburu denda garaiko "ultramarino"-en antzera aldatzen joan zen. Aitonak, adibidez, erakusleio zabalak ireki zituen. Frantziako muga aldean ikusia zuen beste aldeko komertzioetan leiho handiak zituztela eta berak gauza bera egin zuen. Esaten zuen erakusleioa dendari bat gehiago zela.

Aitonak faktura guzti-guztiak gordetzen zituen. 1934tik hona guztiak ditugu eta haietan ikusten da zer eta non erosten eta saltzen zuten. 100 produktu baino gehiago.

María Luisa: Iruñeko biltegiatara astero joan behar genuen erostera eta generoa La Montañesako autobusetan edo Irati trenean ekartzen genuen amak eta biok. Gero, geltokitik, herriko haurrek prozesioan eramaten zuten zama dendaraino, gozoki batzuen truke.

Gabonak garai ederrenak ziren. Jostailuz eta mazapanez betetako erakusleio bat jartzen genuen. Jostailuak enkarguz ekarri eta denda-ostean gordetzen genituen. Nik txikitik ez nuen ezer ulertzen: emakumeak etortzen ziren, jostailuak ordaindu, baina ez zituzten eramaten. Denda-



ostean gordetzen genituen eta gero etxeetan agertzen ziren, Errege Magoek banatuta.

Aita eta ama beti burua hausten ari ziren pentsatzen zer gehiago egiten ahal zuten diru pixka bat gehiago ateratzeko.

Gerra garaia nolakoa izan zen?

Marisa: Oso latza. Gauza asko falta ziren eta dena oso kontrolatuta zegoen errazionamendu txarteekin. Zegokiona baino gehiago emanez gero, isuna jartzen zizuten. Denda hiru hilabetez itxi ziguten.

Gorde ditugu errazionamendu-liburuxkak eta kupoiak, eta hor ikusten da nola bizi ziren herritarrek. Orain herriko jendeak ikus dezake hemen informazio hori guztia.

María Luisa: Oso garai zailak ziren, baina labea eta irina genuenez, ogia, behintzat, bagenuen. Txikitan amak esaten zigun kalera ez ateratzeko merienda jatera, besteei inbidiarik ez ematearren.

Eta kontrabandoan ibili ziren?

Marisa: Horren inguruko informazio gutxi dugu, baina bai iritsi zaigula birramona Margarita mendi bideetatik Frantziara joaten zela mando eta gizon batzuekin eta handik generoa ekartzen zutela.

María Luisa: Margaritaz esaten zuten ipurdi handiko eta asentu gutxiko andrea zela, oso mugitua zelako.

Zein da merkatarari onaren sekretua?

María Luisa: Diplomazia handia behar da, eta, batzuetan, azal lodi samarra ere bai. Nire amak esaten zuen bezeroari

arrazoia eman behar zaiola beti, eduki ez arren, pozik joan dadin. Tratu zuzena, jendea ezagutzea eta zerbitzu onena eman nahi izatea dira merkataritza txikiaren gakoak, bihar ere hemen bertan jarraituko dugulako.



Off the record

MERKATARI PETO-PETOA

María Luisa: Dendan denetik saltzen genuen: Elikagaiak, drogeria, Gabonetako jostailuak, argi-aparatuak, baxerak, ehunak, gozokiak, eskolako liburuak... Batzuetan, nire gurasoek etxeko gauzak ere saltzen zituzten. Behin emakume batek eskatu zuen jostailuzko idi-orga bat semeari oparitzeko eta amak armairu baten gainean zegoen anaiarena saldu zion. Eta begira zer egin zidan niri: Zaragozara egin genuen eztei-bidaia eta han manikurako kutxatila polit bat erosi genion amari, baina aukera iritsi zitzaionean, andregaiari oparitzeko halako bat nahi zuen gizon bati saldu zion. Merkatarari peto-petoa zen.

Entzun, ikusi eta askotan isildu egin behar da. Ezkutuan gorde behar da norbaitek ezin badu ordaindu edo nork agintzen duen etxe bakoitzean.

Behin, adibidez, txikia nintzenean, emakume bat ez zen hileko kontua ordaintzera etorri, eta amak haren etxera bidali ninduen kobratzera. “Zertara zatoz?” esan zidan. “Zor duzunaren bila”, esan nion. Etxean sarrarazi ninduen eta Jesukristoren Bihotz Sakratuaren irudi baten aurrean esan zidan haren izenean amari eskatzeko zorra barka ziezaion. Hala eta guztiz ere, nik nirea defendatu nuen, baina hori bai, dendara itzulitakoan amari esan nion berriro ez bidaltzeko zorrak erreklamatzera. Baina horiek salbuespenak izan dira. Jende gehien-gehiena jende ona da, bestela ez genukeen hemen iraunen 200 urte!

Familia honetako emakumeen lana funtsezkoa izan da?

Marisa: Hala da. Kemen handiko emakumeak izan dira guztiak. Guk beti esaten dugu gure familiarena emakume indartsuen eta gizon onen historia dela. Garai gogorretan ere, emakumeei bidea egitea eragotzi ez dieten gizon adeitsuak izan dira gure etxekoak.

María Luisa, nolakoa izan da zure garaia?

María Luisa: Nik betidanik gogotik egin izan dut lana bai dendan, baita etxean ere. Gazte garaian niri ezkontzak ez zidan atentzioa ematen, baina ama ez zen isiltzen eta azkenean onartu nuen gurasoek proposatu zidatena. Adostutako ezkontza izan zen. Nire gurasoak

eta bereak iritsi ziren akordio bate-ra eta 1962ko urtarrilean aurkezpe-na egin genuen. Horrela, Egiarreta-ko Demetrio Aldazekin hasi nintzen ibiltzen eta dena oso ongi atera zen. Iruñean geratzen ginen igandetan hitz egiteko eta gero, Agoitzera etortzen zen igandero Egiarretatik bere moto-rreran, ikaragarritzko zarata ateratzen zuena... Urte horretako urrian bertan ezkondu ginen, azkar, hemen laguntza behar zelako eta oso ongi moldatzen ginelako.

Idatzi zidan lehen gutuna 14.000 aldiz irakurri dut. Bera ni baino erroman-tikoagoa zen. Oso jatorra zen. Nobio garaiko gutunak orain liburuan ageri dira. Hau lotsa!

Nire ama zenak izaera handia zuen eta beldur nion. Demetrio abeltzain familia batetik zetorren eta familiaren negozioan sartu behar zuen, baina oso langilea eta atsegina zen eta jendeak izugarri maite izan zuen hasieratik. Familian ongi egokitu zen eta herrian ere bai. Zorionez, dena ongi atera da.

Eta zein da gaur egungo egoera?

Marisa: Oso zaila. Lehia ikaragarria da. Hasieran merkatal-gune handiek eta



gero internetek muga asko jarri diz-kigute. Azkenean soilik ehun-gaiekin gelditu gara. Hau Goiburu dendaren azken belaunaldia da. Nik ez dut seme-alabarik eta ez dut uste inork jarraituko duenik ni jubilatzen naizenean, baina

ez dut etorkizunean pentsatzen. Ni-retzako egunero pertsiana altxatzea aski da. Gustatuko litzaidake komert-zio txikiak jarraitzea, horrek ematen diolako bizia herri bati, baina oso zail ikusten dut. Hemen, Agoitzen, bost harategi zeuden eta bi baino ez da gel-ditzen orain. Kale nagusiko komertzio ia guztiak ere itxi dituzte. Bezero gaz-teak galdu ditugu erabat.

Lanbideak harrapatuta jarraitzen dut nik. Hau pozoi bat da. Merkatar-ritza odolean eramaten da eta gusta-tzen zaigu. Denda gure etxea da.

Liburua, urteurreneko ospakizu-nak eta bisita gidatuak egin ditugu fa-miliaren historia honi balioa emateko eta komertzio txikiaren garrantzia al-darrikatzeko.

Zorionez dokumentazio ugari eta faktura guztiak ditugu gordeta eta ho-rrekin guztiarekin Karekin Kultura enpresako Kati Leatxek liburu ederra osatu du. Diru etekin guztiak herriko historia eta ondarea ikertzen dituen Hidea Kultura Elkarterako izanen dira.

Herriarekin partekatu nahi genuen hau guztia, azken finean, tokiko mer-kataritzarena herrien historiaren parte garrantzitsua delako. asko. ●

Martxokoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Oposiziogile eta opositore



MAIALEN SOBRINO
HIZKUNTZA EKINTZAILEA

Azken boladan euskaraz eroso aritu nahi izan dut oposizioak egin. Hasteko, oposizioa bera ez da eroso, hobe definitzen dute hitzaren aldaerek: eraso inteligentziari memorizazioan oinarrituta dagoelako, batzuetan eresia, bertzeetan erauzia zaigun aukera, penoso edo peñazoa, gehienetan arazoa eta eroa oso. Beraz, oposizioan euskaraz eroso aritzea erronka bikoitza edo berrerronka izan da eta jarraian kontatuko dizuet zergatik.

Lehendabizi, izena eman behar. Formularioa betetzen hasi orduko plataformak "patua" aukeratzeko eskatu zidan. Zorionez, ez zen galdera irekia eta, zerrendan erreferentzia geografikoak bertzerik ez zeudenez, segituan ohartu nintzen lantokiari buruz ari zela, hau da, destino fisikoari buruz. Dena den, ongi ulertu nuen euskaraz aritzeak nire patua markatuko zuela eta, egiari zor, enpatia sentitu nuen, patu horrek berak bultzatuta, "klika" kontrako aldera egin zutenekiko, alegia, momentu horretan formularioaren hizkuntza aldatzeko klik egin zutenekiko.

Bigarren momentu kritikoa azterketa egiteko hizkuntza erabakitzea izan zen. Erabaki pertsonala, askea dirudi, baina kasu. Zein hizkuntzatan dago bibliografia? Eta ikasmaterialak? Akademia bate-ra joateko asmoa baduzu, irakaslea zein

hizkuntzatan arituko da? Azterketa egin nahi duenak, bertzeak bertze, bere esku ez dauden aldagai horiei guztiei erreparatzen die eta horregatik da garrantzitsua erakundeek dagokien lana egin izatea, aztertzaileak berak errotik baldintzatu ez dezan askea zirudien abiapuntu-ko erabakia.

Oposizio dezente egin ditut eta behin, behin bakarrik, eskaini du oposizioa deitzen zuen erakundeak prozesu osoa euskaraz eroso egiteko aukera. Zin dagizuet gainerako hizkuntza guztietan bezain aspergarria dela euskaraz administrazio prozedura ikastea, baina zin dagizuet, egin dudalako, posible dela. Orduan, posible bada, zergatik ez da sistematiko-ki bermatzen oposizio guztiak euskaraz eroso egin ahal izatea? Administrazioa euskalduntzeko bide eraginkorra litzateke. Gaur gaurkoz, kasurik onenean meritua edo baldintza da euskara jakitea oposizioetan, baina kasu guztietan oposizioa euskaraz egiteak are meritu handiagoa du. Ez da normala euskaldunak oposizioa erdaraz egitera bideratzea, eta konfort gune horietatik aterarazi beharko ditugu erakunde batzuk bertan euskaraz eroso aritzeko guneak eraiki nahi baditugu.

Azkenik, azterketa eguna ailegatu eta bozgorailuetatik aditu da: "Azterketa euskaraz egin nahi baduzu, mesedez, altxatu eskua". Ez dago eskurik bistan,

baina erabakia hainbertze baldintzatu ondotik, zitala litzateke azterketa euskaraz ez egitearen errua osoki leporatzea azterketa egiten duenari. Euskalduna itotzen du erruaren zamak, feministak eta ekologistak erruz itotzen ditugun bezalatsu. Ikasi behar dugu askatzen eta, aldi berean, ito gabe aitzinera segitzen. Noski "klika" egin beharko dugula, hizkuntza ohiturak aldatu oposizioetan ere, zehapena eta emakida zer diren ikasteko, adibidez; fisika euskaraz ikasi zuten aitzindariak egin bezala edo besapeko ileak mozteari utzi zioten emakumeen gisan. Hau da, kontzientzia piztu, aldarrikapenak dagokienei egin, bideak zabaldu, baina bidean doanari goitik behe-rako minimoaren langarik ezarri gabe.

Funtsean, erronkak gogorarazi dit euskaraz eroso aritzeko guneak ez datozela berez, eraiki behar ditugula. Kontzientzia eta elkarlana eskatzen dute, non eta individualismoa eta ez pentsatzea aurrerakoitzat saltzen dizkiguten testuinguruan. Hala eta guztiz ere, paradoxikoa dirudien arren, ingurura begiratu eta posible dela erakusten digute etengabe euskararen biziberritzeak, feminismoak edo ekologismoak. Izan ere, emakumeentzako gune seguruak, babesgune naturalak edo euskaraz eroso aritzeko guneak, hein batean, iduritsu eraikitzen ditugu. ●

BABESLEA:



Ez gaitu harritu



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

Auzokideak ez zeuden harrituta. Hala entzun ahal izan genuen irratitik, kotxean, etxera bueltan gentozela. Han-hemenkako idatzizkoetan ere jaso zuten kazetariak, edozein gertaera lazgarri suertatzen denean egin behar omen duten bezala: espero modukoa ei zen; dena ei zen zarata, oihu eta txilio etxe hartan; poztasunik ez ei zitzaien igartzen kalera jaisten zirenean.

Beste sasoi batzuetara egin zidan buruak atzera. Auzokideen zenbat testingantza antzeko ez al dira jaso emakumeren bat hilik aurkitu denean? Ez txarto ulertu, harako sasoiak oraina ere badira. Baina egindako lan sozial eta feminista guztiaren ostean, geure burua interpelaturik, behinbat, sentitzen dugu etxeko paretaren beste aldetik susmoa hartzekotan. Aitzitik, dirudienez, ez da halakorik suertatzen jopuntuan daudenak umeak baldin badira.

Umeak oraindik dira jabetza pribatua. Emaztea senarraren jabetza pribatua zen bezalaxe. Askoz pribatuagoa harremanen pribatizazioaren aroan, norbanakook geure eremu partikularrenetan isolatu eta inguruan hesia altxatu dugun honetan. Eta, pertsona txiki horiek, zaharraren zaharrez hiltzen diren artean, tribuarekin elkarre-

kintzan eta elkarren eraginpean biziko diren arren, tribuak ez bide dauka esatekorik. Konbentzio sozial sendoa da. Ondo dakigu. Horregatik, akaso, isiltzen dira harritzen ez diren auzokideak.

Baina askoz harago doan afera da. Gure zerbitzura dauden bitarteko erabilgarriak izan dira betidanik umeak. Bizimodu petral hau (eta gehitu nahi beste abizen: kapitalista, kontsumista, patriarkal, esplotatzaile, bihozgabe...) frustrazio sorrarazle erraldoia da. Eta gauza jakina da, frustrazioak kudeatzen jakiten ez denean, biderik errazena hartu ohi dela: ahulagoa den beste bati ordainarazi. Ez dakigu boteretsu sentitzen, beste bat zapaldurik ez bada.

Haurreria, botere harremanen matza konplexuaren barruan, ahulezia egoera berezian dagoen talde soziala da. Bai, talde soziala, berezko ezaugarri guztiekin eta berezko zapalkuntzak pairatzen dituen. Eta, ezaugarri propio horiek, besteak beste, dakarten mendekotasun eta dependentzia maila handiagatik, autodefentsarako aukerarik ez daukan bakarrenetakoa.

Inoiz kontatu dudak bezala, latinezko *infans*, *infantis* delakoak “ahotsik ez daukana” esangura dauka. Infantea ez

da hitz egiten ez dakiena, baizik eta jende aurrean hitz egiten ez duena, esateko daukana azalarazten ez duena. Manfred Liebele dioenez, “mutututako taldeen” ezaugarriak dauzkate: jendartean behe maila betetzen dute; zilegitasuna kendu zaie eta ez dute onespentik izaten (“umekeria” mespretxuzko terminoa da, adibidez); ez daukate erabakitze ahalmenik, ezta euren interes zuzenekoak diren gai politiko, ekonomiko eta sozialetan eragiteko aukerarik ere.

Tratu txarrak eta bortxakeria eskaileraren azken maila dira, ikusgarriena, zapalketa guztietan gertatzen den bezala. Horiek kasu isolatutzat hartu ohi dira, guraso anker eta basatien gehiegikeriak balira bezala, testuinguru sozio-politikorik gabe. Ez gaude prest ahotsik ez daukaten horiei ahotsa emateko, ezta euren ahots politikoa izateko ere.

Urteetan aurrera joan ahala, gure kokapen soziala nabarmenki hobetzen den momentutik, nahiago izaten dugu, agidanez, hura ahaztu, atzean utzi. Haurtzaroa idealizatzerantz ere jotzen dugu sarri askotan. Baina, funtsean, denok izan ginen noizbait menpeko talde sozial horretako partaide. Ikasgai baliotsuak izan beharko genituzke handik ateratzeko. ●



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA IRAKASLEA

Euskara espetxean

Espetxeetan harremanak ezberdinak dira. Hainbat baldintzapean dituzte, baina nagusiak dira espetxean daudenek ez dutela bertan egon nahi eta ezin dutela elkar ekidin. Testuinguru muturreko horretan sortzen diren egoera komunikatiboak, hizketa egintzak, erregistro eta gakoak bereziak dira eta, ondorioz, arrasto agerienetakoa hizkeran islatu ohi da. Hamaika ikerketa egin dira hizkuntzalaritzaren hainbat esparrutatik, eta ondorio argia da lexikoan zein fraseologian berrikuntza iturri oparoa direla burdinen atzean sortzen diren hizkera horiek. Gerora, berrikuntza horiek kalera irten eta hizkuntzaren parte bilakatzen dira, hasieran hizkera kolokialetan, baina azkenean akademiek ere onartzen dituzte ekarpenok.

Euskarak ez du izan esparru hori beretzat. Euskaldun ugari egon dira espetxean, baina ez da gure eremua izan. Euskarak berezkoa zuen informazioa ezkutatze gaitasuna eta, jazarria izan bada ere, beste presoen inbidia piztu izan du. Horren lekukotasuna *Txori Urdinak* liburuan jaso zuen Zigor Olabarriak Santi Cobosen eskutik.

Hala ere, euskara ez da Puerto de Santa Maria, Alcalá de Mérida, Picassent edo Fleury Merogiseko hizkuntza, eta bertan izan diren ehunka presoei senideak, lagunak eta herria bera urruntzeaz batera, euskara ere urrundu diete. Horri

partxea jarri nahian ibili dira bost urtez berrogeitik gora irakasle, gutunen bidez eta batzuetan lagunei bisita kenduta, euskara zulo txikiren batetik sartu nahian. Arrakasta itzela izan du ekimenak, batez ere sortu diren harremanen ikuspuntutik, baina baita ikasleek lortutako emaitza akademikoei dagokienez ere. Ikasle finak inondik ere.

Orain gutxi Zaballako espetxean Kolonbian hizkuntzen biziberritzean laguntzen egiten dugunari buruzko hitzaldi bat eman nuen, euskaraz, jakina. Bertan zeuden 60 entzuleak euskaldunak ziren, tartean bi kolonbiar *belarriprest* eta Santi Cobos bera, Leoneko semea. Euskara komunikazio hizkuntza bilakatu da bertara heldu berri diren hainbat presoren artean. Euskara erdigunean kokatu eta hainbat ekimen sortu dituzte, bertsoak, liburuak eta mintza saioak, adibidez. Irakaspen ederra denontzat ere, euskara erdigunera ekartzea.

Euskaldunen arteko harremanak bereziak direla esango nuke. Horrek eraman zuen Santi, adibidez, euskara ikastera. Liskarrak ohikoak diren testuinguruan, besarkadak, zaintza keinuak eta elkarlana dira nagusi euskaraz, eta hori, batzuei deskolokea badakarkie ere, erakargarria gertatzen zaie beste hainbati. Euskara ikasteko eskariak izugarri igotzen ari dira Eukal Herrian dauden espetxeetan. ●

Gaixorik



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Eztarriko mina, karga buruan, ezin ondo pentsatu... gaixotze lehen fasean nagoela uste dut. Gaixorik. Askok beldurra diote berbari, ez da harritzekoa pasatu ditugun urte biak pasata.

Gaixorik ei dagoela euskal gizartea makina bat bider leporatu digute. Birus barik. Gure eritasuna kontzeptuala eta morala da, antza denez. Baina Mendebaldean —mapamundiaren ipar-mendebaldean— zein sozietate ez dago, bada, gaixo? Begiak itxita bizi gara-eta guk eta gure aurrekoek eragindako injustizia, lapurreta eta gerren aurrean. Hemen ondo bizitzeko, ingurua txikitu eta hor konpon beste guztiak.

Norbanakook ere gaixo gaude. Pandemiak osteak azaleratu eta indartu dizkigu barruan generamatzen ondoezak. Intsatifazio infinitua bizi dugu, oro har, dena lor genezakeela saldu zigutelako. Saldu eta guk erosi. Frustrazioaren zuloan jausita gaude, noraezean. Muntatu dugunari jakin barik zelan buelta eman.

Izan nezakeen gripea joan liteke deskantsatuta eta denboraz. Gure artean instalatuta dagoen gaitza (esanahi guztietan) ez du ez loak ez parasetamolak osatuko. Lan itzela dugu mundu osasuna eskuratu gura badugu. ●

Non dira gazteak?



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

A bendu erditsuan, Akizen. Epaitegiaren aitzinean hamarnaka militante bilduak dira, uztailaren 23ko mobilizazio egunean atxilotutako en sustenguz. Haizeak eraman ditu goizean euriz kargatutako hodeiak eta eguzkia hasia da bazterra berotzen. Bertaratutako en artean, usaiazko erri-tual bat martxan ezartzen da: aspaldiko bidelaguna agurtu, elkarren berri har-tu... eta berriz ere gazte gutti hurbildu dela deitoratu. “Ostegun arratsaldea da; batzuk lanean dira behar bada?”.

Urtarril hasieran, Baionan. Lagun baten urtebetetze festan, 70 urteko amatxi kaskazuri batekin mintzo, zigarrreta esku batean, edalontzia bestean. Bestaren giroaz eta beste zertzeladez solasean ari ginela, inolako loturarik gabe tirada nostalgiko batean abiatzen da beren urrezko garaiari buruz, lehen borrokatzea zer zen bazekitela... eta oraingo gazteen indibidualismoari buruz marmarka! “Ostatura noa basoa betetzera. Zerbaiten beharra baduzu?” –ez nintzen sekulan itzuli harengana–.

Otsaila erditsuan, Itsasun. Mugimendu abertzalearen 60. urtebetetzearen kariatara, Bagira mugimenduak transmisio historikoaren abiatzea ospatzen

Herri mugimendutik zama asko ematen ari gara gazteen bizkar gainean. Dena ez da eder, baina kulpabilizazioarekin ez gara aitzinatuko

du. Oholtzan, belaunaldi desberdine-tako lekuko interesgarriak eta gelan jende asko... baina askoren erranetan –berriz ere– gazte gutti. Alta, haientzat antolatua izan omen da. “Haientzat, bai-na haiekin?”.

Azken asteetan bizi izandako esze-natxo horiek ez dira kasu isolatuak. Eta banuke horrelako beste adibide asko partekatze aukera. Badakit negu beteko giroan ez dela beti erraz opti-mismoaren betaurrekoekin jantzirik etxetik ateratzea. Kontziente naiz ere Euskal Herria askatu eta mundua aldatu nahi zuen belaunaldi baten ame-

tsak ez direla (osoki) bete eta horrek frustrazioak ekartzen ahal dituela. Be-launaldien arteko harremana eta elkar ulertzea ez da beti erraza. Ados!

Baina iruditzen zait, hala ere, azken aldi honetan, herri mugimendutik zama asko ematen ari girela gazteen bizkar gainean. Jendartea, engaiamendu for-mak eta testuinguru politikoa aldatu dira. Baina gazteak beti hor dira. Liber-timenduekin herriko plazak berresku-ratzen dituzte. Oholtzara igotzen dira publiko aitzinean Bertsuxurlatzeko. Show-ak antolatzen dituzte barnekal-dean heteronormatik kanpoko sexu-nortasunak ahalduntzeko. Kaskaroten tradizioa erreberritzen dute gizonez-koen monopolioa irauliz. Gaztetxeak, herriko bestak, herriko elkarteak... biziarazten dituzte. Eta 30 urte baino gehiago ditugunon radarretatik kan-po gertatzen diren beste gauza asko ere egiten dituzte, ilusioz, ausardiaz eta haien kodeetatik.

Dena ez da eder. Baina kulpabiliza-zioa, kritika obsesionala eta nostalgia-rekin ez gara aitzinatuko. Beraz, bakean utz ditzagun gazteak... Edo belaunaldi bakoitzak egin dezala bere *aggiorna-mento*a. ●





ATXEGA JAUREGIA

JATETXEA

AITZEZARRA KALEA 1 USURBIL, GIPUZKOA
943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

Europako politika

Ez itsasoan biziak salbatu, ez besteei salbatzen utzi

Kataluniarra zen, birikak harrotasunez beteta, Mediterraneoan jaio zela zioen kantaria; jendearen bihotzak hunkitzera heldu zen Serrat, eta lortzen zuen harrotasun hori kutsatzea ur horiek ukitu ere egin ez zituen jendearen artean. Joan Manuelen abestiak falta zuen, ordea, sekuela bat: itsaso horretan itotako pertsona baten pasartea. Eta ez lirateke gutxi, ia 26.000 azken bederatzi urteetan. Izan ere, Mediterraneo, itsaso epel eta zibilizazio sortzaile hura, hiltzailea ere bada, hegoaldeetik ihesi doazen milaka lagunak nekropoli erraldoi bat. Katastrofe horren erdian daude laguntza humanitarioko GKEen itsasontziak, flota hondoratzeko jokoan nola, oztopoak saihestu eta Mediterraneoan hondoratzen diren pateretako jendea erreskatatu nahian. Bitartean, Europak jarraitzen du Afrikari, nazioarteko zuzenbideari, eta giza eskubideei oro har bizkarra ematen; Georgia Meloni Italiako lehen ministroaren dekretua da horren enegarren adibidea.





tsaso horretan daude momentu honetan SMH erakundeko Aita Mari erreskate ontziko kideak, lasai eta bero izanagatik ere, bortitz eta pare bat metroko olatuekin hartu dituen uretan. “Search and Rescue-ko uretan gaude; bilaketa eta erreskatekoak, alegia. Momentu honetatik aurrera alertan gaude, inor arriskuan balego erreskatatzeko”, motor hotsaren artetik entzuten dira Mikel San Sebastianen berbak. Erreskate ontziko kidea da San Sebastian; Castellò-ko portutik (Herrialde Katalanak) irten berri da itsasontzia, aurtengo misio berriari ekiteko. Eta horretan daude, Italiako uretan, baina Afrikako kostaldeari so; bata eta bestea banatzen dituen muga ukiezin bezain zorrotzean bueltaka. Dagoeneko 71 lagun erreskatatu dituzte, eta 40ri jarraipena egin diete kostazainak iritsi arte.

“Guk argi dugu: ez gara itsasora joaten horrela nahi dugulako, jendea la- guntzen saiatzeko baino”, dio San Sebastianek. Afrika eta Europaren arteko muga ia ikusezina da, hain da txikia. Baina puntuitsu bat da nazioarteko politiketarako, eta kostalde bateko zein bes-

teko agintariak ez dute betetzen beren lana, hori dio Aita Mariko kideak: “Oxala Mediterraneoko herrialdeek beren betebeharrak beteko balituzte eta bilaketa eta erreskateko uretan eskura dauzkaten operatibo guztiak martxan jarriko balituzte, jendeak itsasoan arriskurik izan ez dezan”.

Baina hori ez da errealia. Errealitatea da Aita Mari bezala, beste hamaika itsasontzi daudela maparen tolesduretan zehar nabigatzen, biziak salbatzen. Aita Mariren kasuan, 2017an Erdialdeko Mediterraneora heldu zenetik 1.000 bizitzatik gora lehorreratu ditu. “Mediterranean dabilten bizien ehuneko jakin bat salbatzen da erreskatean gabiltzan flotari esker; guztira salbatzen den jendearen %10 inguru izango da. Gainontzean, batzuek beren kabuz lortzen dute salbatzea, beste batzuk Italiako kostazainek erreskatatzen dituzte, beren lana ondo betetzen dutelako. Gutxi irudi lezake, baina ehuneko garrantzitsu bat da”, dio San Sebastianek. Iaz, esaterako, lehorrera heldu ziren 105.000 migratzaileetatik 12.467 izan ziren erreskate ontziek salbatuta; %12 inguru.

ERLOJUAREN ETA GOBERNUAREN AURKAKO BORROKA

Aurtengo lehen misioa dute, beraz, Aita Marin; bederatzigarrena, 2017an beren bideari ekin ziotenetik. Berez, iazko urrian itsasoratu behar zuten, 2022ko hirugarren misioari ekiteko: beste bi misioetan 289 pertsona erreskatatu zituzten, eta 280ri jarraipena egin. Ezin izan zuten hirugarren misio hori iaz egin, baimenak lortzeko prozeduran itxaroteko eskatu baitzieten Castellò-ko portuko agintariak. “Eskatu ziguten irteera urtarrilera atzeratzeko. Bagenekien nahi izanez gero ere ezingo genukeela irten, baimenik ez genuelako. Ez genuen erresistentziarik jarri, egoera onartu genuen; baina kontziente ginen horrek arrisku handiagoa zekarrela itsasoan zeuden pertsonentzako”, dio San Sebastianek.

Eta ez da gutxiagorako, itsaso horretan lanean dabilten GKEek ondo baitakite beren lana erlojuaren aurkako borroka dela. Aurten, bi hilabete eskasean, 4.500 migratzaile erregistratu dituzte Erdialdeko Mediterraneoko bidean, Aita Mariren lan eremuan, eta gutxienez 104



hildako (zifra horretan ez daude otsailaren 15ean Libia parean hildako 70 migratzaileak). Erlojua, beraz, oztopo bat da beren lana egin dezaten; biziak salbatu ditzaten, alegia. Baina hori ez da muga bakarra, ezta gutxiago ere, gobernuek guztiz baldintzatzen baitute beren egitekoa, neurri eta arau anitz eta murriztaileekin. “Uneoro zangotraba jartzea modukoa da”, dio Aita Mariko kideak.


Jende gutxiago erreskatatu dezakete dekretu berriarekin, eta denbora luzeagoa behar dute erreskatatutakoak porturatzeko

ITALIAK, POLITIKA MURRIZTAILEENAK


Etengabeko oztopo, hesi eta ezezkoen adierazle argiena da Italia, batez ere ultraeskuina gobernura iritsi denetik. Georgia Meloni lehen ministroak kargua hartu bezain pronto estutu zituen neurriak, 2022ko urrian. Kargua hartu eta hilabetera, azaroan, guztira 1.000 migratzaile zeramatzen lau itsasontziri iritsiera mugatu zien. “Itsasontziek portua eskatu zuten eta momentu horretan sortu zuen dekretu bat, itsasontzi horiek porturatu zituzten soilik asilo eskatzaileak edo egoera zaurgarrian zeuden pertsonak”, azaldu du San Sebastianek. Neurri hori, nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa, atzera bota behar izan zuen gobernuak, eta guztien porturatzeari baimendu. Hala ere, izan zen itsasontzi bat, Sos Mediterranè, Frantziako Estatu portuetara itzuli zena, Emmanuel Macron lehen ministroaren eskaerari jarraiki.

Meloniren lehen ekintza horrek alarma zabaldu zuen laguntza humanitarioari erakundearen artean, beren lanari ezarritako oztopo zuzen gisa ulertu baitzuten. Eta ez zebiltzan oker, 2023ko urtarilaren 2an jarrera indartu baitu Melonik: dekretu berri batean guztiz mugatu du erakunde horien jarduna. “Erreskate bat egiten den bakoitzean portu bat esleitzen zaigu eta exijitzen digute hara joatea, berandu barik; ale-

Erdialdeko Mediterraneoko bidea, 2015-2023 artean iritsitako migratzaileak



Erdialdeko Mediterraneoko bidera zein herrialdeetatik iritsi diren 2023an



Iturria: Europako Batasuneko Kontseilua

gia, ezin gaitezke eremu horretan geratu arriskuan dagoen beste paterarik dagoen ikusteko”, azaldu du egoera Aita Mariko kideak.

Horrek nabarmen eragingo dio GKEen lanari; alde batetik, denbora oso preziatua dutelako; eta, bestetik, ohikoa delako erreskatatzera irtetea ongi bateko baino gehiagoko migratzaileak jasotzea. Honela azaldu du San Sebastianek: “Guk, normalean, erreskate bat egiten dugu eta portura joaten gara zuzenean; 150 pertsonarentzako edukiera dugu soilik. Baina iazko ekainean, esaterako, lau erreskate egin genituen jarraian, egoerak horretara eraman gintuelako: lehenengoan hamaika hartu genituen, gero hamazazpi, 40 eta 45. Lau egun egon ginen erreskatatzen, eta orain, ziurrenik, ezingo genukeen hori egin, portua emandakoan hara joan behar dugulako”.

Hori da lege berri honen beste oztopo bat: portuen kokapena. “Portua nahiko bizkor ematen digute, baina oso urrun. Lehen, normalean, Lampedusan ematen zuten, Sizilian. Azkeneko aldiak, Ancoran eman zioten MSFko itsasontziari, ipar mendebaldean, lauzpabost nabegazio egunetara”. Jende gutxiago erreskatatu dezakete, beraz, eta denbora luzeagoa behar dute erreskatatutakoak porturatzeko.

Baina hori gutxi ez, eta beste eskaizun bat ere badakar dekretuak: “Dekretu berriak derrigortzen gaitu pertsonen informazioa ematera asilo eskaerei buruz”. Hori lan gehigarri bat litzateke erreskate ontzietako tripulazioarentzat, herrialde eta hizkuntza anitzetako jendea jasotzen dutelako, eta beti ez dutelako baliabiderik horretarako. “Guk ahal ditugun neurriak hartu ditugu, baina

ACNURrek berak ere esan du itsasontzi bateko tripulazioak ez duela horretarako baliabiderik. Erreskatea bukatzen da jendea porturatzean, eta guk ulertzen dugu han egon behar dutela beste erakunde batzuk baldintza hobekoetan emango dietenak informazioa”.

GKEek erantzun egin diote dekretuari, haserrea nabaria baita: “Saihestu nahian dabilta erreskateko GKEen zirkulazioa. Badakigu hau errotik moztu nahi dutela, inoiz ez digute lana errazten”, dio San Sebastianek. Hain zuzen ere, jada bildu dira hemeretzi nazioarteko erakunde dekretuaren aurka egiteko, dekretu berriak heriotza gehiago eragingo dituela salatu dute, eta berretsi dute biziak salbatzen jarraituko dutela. Horixe bera esan du San Sebastianek: “Portura bidean gaudela abisuren bat badago hurbil, nazioarteko zuzenbideak derrigortzen gaitu laguntzera”.

EUROPA, KONPLIZEA

Italia da, gaur egun, Europako politika baztertzailen aurpegia. Baina bere influentzia ez da Europara mugatzen, Afrikan ere baditu kontaktuak. Egun Europara iristen diren Afrikako migrazio olde nagusiak Libiatik heltzen dira, batez ere. Baina heltzen direnak saiakera egiten dutenen ehuneko txiki bat baino ez dira, Libiako bertako politikengatik, zeintzuek Europako Batasunaren babesa duten. “Italiak zenbait itsasontzi eman dizkie Libiako kostazainei, migratzaileen etorrera errotik moztu dezaten”, azaldu du Aita Mari kideak. Migratzaileen etorrera mozteaz ari deanean, beraiek itzularazteaz ari da, berehalako kanporaketaz.

“Libiako uretan migratzaileak itzultzen dituzte herrialdera, Libiara, baina ez da segurua herrialde hori: ez dago demokraziarik, ezta egonkortasunik ere. Nazioarteko zuzenbideak ez du baimentzen ihes egin duen pertsona bat bere herrialdera itzultzea, herrialdea ez bada segurua”, dio San Sebastianek. Bien bitartean, Europako Batasunak 700 milioi euro eman dizkio Libiari, migratzaileen aferan laguntzeko: EBren datuen arabera, 2017 eta 2021 artean 88.000 migratzaile erreskatatu zituzten herrialdean bertan.

Zifra horien guztien erdian beste errealitate bat azaleratu da: Italiako Gobernuak Libiakoarekin akordioa sinatu du Europara gas sarbidea bermatzeko. Urtarrilean sinatu dute 8.000 milioi dolarreko kontratua; akordio hori sinatu

baino astebete lehenago egin zuen beste bat Aljeriakoarekin, 284 kilometroko gas hodia eraikitzeko. “Italiak nahi du zubi energetiko bat eraiki Magreben eta Europaren artean; oster, ez zaio bururatu ere egin zubi humanitarioa sortzea Libiatik ihesi datozenentzako, ezta guxtiago ere”, salatu du San Sebastianek.

ICEBERGAREN PUNTA

Erdialdeko Mediterraneoan ari da lanean Aita Mari, Afrikatik Europara doazen migratzaile gehienek egiten duten bidean. Libiako portuetatik ateratzen dira gehienak, Aljeriatik ere bai zenbait; eta Italia eta Malta dituzte helmuga. Atzean geratu dira Ekialdeko Mediterraneoko garaiak, milioika errefuxiatu Turkiako eta Greziako kostaldera heldu zirenekoak: hango migratzaile fluxuak nabarmen egin du beheara, baina egon badaude oraindik.

Hala ere, orain Erdialdeko Mediterraneo da fluxuaren zentroa. Bertara heltzen diren askorentzat, ordea, bidaiaren azken zatia da. “Jendeak Afrikatik ihes egiten du oso bidaia arriskutsuetan, eurretako askok urteak daramatzate desertuan edo beste bideetan zehar: itsasoa horren ehuneko txiki bat baino ez da”, dio San Sebastianek. Alegia, Mediterraneoara iritsi aurretik ehunka migratzaile bidean geratuko ziren, horren datu



Mikel San Sebastian, Aita Mari ontziko kidea: “Portura bidean abisuren bat badago hurbil, nazioarteko zuzenbideak derrigortzen gaitu laguntzera”.



zehatzik ez badago ere; itsasoraino heldu direnak beren jatorrizko herrialdean bidaia hasi zutenen zati txiki bat dira. Azken bultzadatzat da itsasoa, itsaso ustez lasai eta bero bat.

San Sebastianek aipatutako urte luze-ko bidaia hori ikusten da migratzaileen datuetan. Izan ere, Erdialdeko Mediterraneoko bidea herritartasun askoren batura da. Aurtengo datuek, azken bi hilabeteetakoak soilik badira ere, erakutsi dute migratzaile gehienak Boli Kostatik heltzen direla: aurtun, dagoeneko ia 900 lagun heldu dira handik. Atzetik datoz Ginea, Pakistan, Egipto eta Tunisia. Azken bi horiek kenduta, Boli Kosta, Ginea edota Pakistanetik milaka kilometro-ra dago Erdialdeko Mediterraneoa, eta bertatik heltzen dira migratzaile gehien, milaka kilometroko eta urte luzeetako bidaiaren ostean.

Eta ihes egiten dute bizimodu hobea bilatu nahi dutelako, horixe ikusi dute Aita Marin: “Jendea saiatzun da bizimodu hobea bilatzen, bizi den infernutik ihes egiten; Aita Marira heltzen diren askok

**“Saihestu nahian
dabilta erreskateko
GKEen zirkulazioa.
Badakigu hau errotik
moztu nahi dutela, inoiz
ez digute lana errazten”**

diote ez dutela gerran aritu nahi, ikasi nahi dutela, lan egin nahi dutela”. Bertan pairatzen duten egoera, ordea, urrun dago esperotakotik: “Oso testigantza gogorak dira, eta ulertu behar dugu horrelako erabaki bat hartzen duten pertsonen egoera, saihetsezina da bizimodu hobea bilatu nahia. Baina erabaki hau hartu dutenetatik askok ez lukete bidaia errepikatuko, nahiago dute hil, sufrimendu honek guztiak ez die merezi”.

Egoera horrek erakusten du nazioarteko politiken bereizkeria, San Sebastianen ustetan: “Ukrainako gerrarekin ikusi dugu zelako bereizkeriak egin dituzten. Asiloak erraztu dira eta baimendu dira pertsonen mugimenduak, korridore humanitarioak, bonbetatik babesteko mugimendu askatasuna. Eta gero daude beste herrialde batzuk, Siria, Afganistan eta beste, aukera hori ez dutenak”.

Serratek itsasoari abesten zion, bere koloreei eta bere ehunka herriei: Algeci-rasen hasi eta Istanbuleraino iristen da itsasoa, hori zioen. Ez zioen, ordea, ez zela berdin Algeci-ras edo Istanbul; Lampedusa edo Tunis. Denak dira Mediterraneo, baina batzuk itsaso urdin eta zabal dira; besteak naufragio eta hilerri. “Migrazioa eskubidea da: ez da non jaio zaren edo duzun diruaren menpeko”, dio Mikel San Sebastianek. Ez da kasualitatea Serrat kataluniarra izatea, Mediterraneoaren alde onean jaio zen; itsasoa eta bertan egiten den bidaia plazerezkoa ala amesgaizto-koa izan baitaiteke, nondik nora joaten den, nondik begiratzen zaion. ●

“ ”

Umiltasun handia ematen dizu beste pertsona batekin gorputzez gorputz borrokatzeak

Sandra Perez

kickboxing borrokalaria

Lotura bitxia sortzen da borrokalarien artean. Elkar joz egiten dira lagun. Finean, kolpeak ez dira amorruren edo herraren ondorio, bakoitzaren adierazpide baizik. Hala dio Sandra Perezek (Donostia, 1996). Kickboxing borrokalaria da; hots, ukabilekin aski ez, eta ostikoka ere aritzen da. Baita indarrez aritu ere: brontzezko domina lortu zuen iazko Espainiako Txapelketan, eta zilarrezkoa Turkiako Openean. Emaizten atzean, diziplina dago. Nahitaezkoa da ia egunero entrenatu, eta pisua kontrolpean izatea. Ringaren barruko gozamenak eta hortik kanpoko laguntasun giroak ematen diote zentzua esfortzuari.

✂ EÑAUT AGIRREBENGOA 📺 DANI BLANCO

Kickboxinga ostikodun boxeotzat jo daiteke, ala gehiegi sinplifikatzea da? Gutxi-asko hori da, nahiz eta aldaera asko dauden. Boxeoko kolpe guztiak hartzen ditu kickboxingak, eta gero, hiru ostiko mota daude: *low kick*-ak, gerritik behera ematen direnak; *middle kick*-ak, gorputzenborrean jotzen direnak; eta *high kick*-ak, burura doazenak. Hainbat modalitate dago, bakoitza bere ñabardurekin. Adibidez, K-1 modalitatean belaunkadak ere jo daitezke. Muai thai delakoa beste kirol bat izango litzateke, eta hor ukondoak ere erabil ditzakezu. Laburbilduz, boxeoa eta karatea bezalako diziplinak elkartuz sortutako kirola da kickboxinga.

Noiztik zabilta zu kickboxingean? Duela sei edo zazpi urte hasi nintzen. Umetan futbolekin eta karatekin aritu

nintzen, eta gero, hainbat urtez, futbolekin soilik jardun nuen. Aldaketa egiteko beharra sentitu nuen unibertsitatean nintzela, eta kickboxinga aipatu zidaten. Proba egitea erabaki nuen, baina ez neukan lehian aritzeko asmorik. Kirol oso aktiboa iruditu zitzaidan. Harritu egin ninduen. Hasieran, astean egun pare batez entrenatzen nuen, eta pixkanaka, entrenatzailea lehiatzeko aukeraz hitz egiten hasi zitzaidan. Orain, astean bost entrenamendu saio egiten ditugu, astelehenetik ostiralera.

Grina piztu dezake txapelketetan aritzeak, baina konpromiso handiagoa ere eskatzen du, ezta?

Guztiz: esfortzu handia egin behar duzu diziplina aldetik. Txorakeria eman dezake, baina gauza askori egin behar diozu

uko. Denboraldia urte osokoa da, beraz, nahiko egonkor iraun behar duzu. Zaletasuna izaten jarraitzen du, baina, agian, zaletasun huts izateari uzten dio. Entrenamenduak, atsedena, elikadura... Gauza asko hartu behar dituzu kontuan, eta diziplina izatea nahitaezkoa da.

Futbola, karatea, atletismoan ere ibili zara... Kontua kirola egitea da.

Beti natural bizi izan dut kirola egunero egitea. Funtsezkoa da niretzat. Esatea kosta egiten zait, baina egia esan, nire egunerokoa ez dut kirolik gabe imajinatzen. Ezingo nuke nire errutinatik kanpo utzi. Balio garrantzitsuak barneratu ditut orokorrean kirolari esker, eta esango nuke kickboxinga dela gehien irakatsi didana. Umiltasun handia ematen dizu beste pertsona batekin gorpu-



"Kirol indibiduala da kickboxinga, norbera hobetzea baita entrenamenduen helburua; ordea, ikusgarria da sortzen den talde dinamika", esan digu borrokalaria donostiarrak.

tzez gorputz borrokatzeak. Kemena ere aipatuko nuke, beharrezkoa baita lehia-tzen hasteko.

Intxaurdi taldean jokatu zenuen futboleant. Zer oroipen duzu garai hartaz?

Oso oroitzapen onak ditut. Futbola betidanik izan dut gustuko. Eskolako jolastokian jo eta ke aritzen ginen. Behin lagun baten izeba etorri zitzaigun, emakumezkoen talde batean jokatzeko zuela esanez, eta proba egiteko gomendatu zigun. Defentsa bezala jokatu nuen beti: hasieran, ezker hegalean, eta erdialdean gero. Sei bat urte emango nituen futboleant.

“ ”

Ringera igotzeant kontzentrazio egoera oso sakonean sartzen zara, eta denbora gelditu egiten da. Entrenatzailea soilik entzuten duzu

Garaia iritsita, gorputza beste zerbaite eskatzen hasi zitzaigun.

Aldatzeko beharra sentitu nuen, eta behin futbola utzita, halako trantsizio bat egin nuen. Denbora gehiago eskaini nion korrika egiteari eta gimnasioko lanari. Nire kabuz aritzeak, ordea, ez ninduen betetzen. Taldean zerbaite egiteko beharra sentitzen nuen. Orduantxe sortu zitzaidan kickboxingean proba egiteko aukera, eta lehen egunetik erakarri ninduen. Entrenatzeko modua oso dibertigarria da.

Borroka-taulara bakarrik igotzen zarete, baina esan duzunagatik, izaera kolektiboa ere badu kickboxingak.

Erabat, eta hori da gehien estimatzen dudana. Kirol indibiduala da, norbera hobetzea baita entrenamenduen helburua. Ordea, ikusgarria da sortzen den talde dinamika. Nonbaitera zoazenean, talde guztia etortzen da, eta lehiatzen gabiltzanok babeseta eta laguntza ematen saiatzen gara beti. Oso polita da sortzen den laguntasun giroa.

Zer ezaugarri behar da kickboxingean ona izateko?

Hasieran ezaugarri fisikoak eta teknika landu behar dituzu. Baina gero, jabetzen zara buruak ere sekulako garrantzia duela. Gorputzez indartsu egotea ez da aski. Egunero entrenatzeko prest egon behar duzu, eta mentalki sendoa izatea eskatzen du horrek.

Nolakoak izaten dira entrenamenduak?

Klase gidatuak izaten ditut astelehenetik ostiralera, Borja Mendioroz entrenatzailearekin, Kuraia taldearen barruan. Bero-keta ariketak egin ostean teknika lantzen dugu, eskuekin eta hankekin. Sparringa ere egiten dugu, borroken estres egoera horretan sartzeko. Ostiraletan beste gimnasio batzuetako jendearekin borrokatzen gara, edo, bestela, fisikoa egiten dugu. Lehiaketak asteburuetan edukitzen ditugu beti.

Borroketan barrua askatzen duzue, baina "estresa" ere aipatu duzu.

Adibidez, arreta handia eskatzen du uneoro aurkariak zer egin dezakeen aztertu eta hurrengo mugimenduak zein izan behar duen erabakitzeak.

Bai, baina niretzat, ringera igo aurreko momentuak izaten dira okerreant. Aurkaria ikusten duzu, ezagutzen duzu, eta burua bueltak ematen hasten zaizu: "ea

zer moduz nabilen”, “ea aurkariak zer egun duen”... Emozionalki momentu hori izaten da gogorrena. Behin ringera igota, denbora gelditu egiten da. Jendea entzun ere ez duzu egiten. Izkinan dagoen entrenatzailearen ahotsa iristen zaizu bakarrik. Kontzentrazio egoera oso sakon batean sartzen zara, eta urduritasuna ere desagertu egiten da.

Jende oldarkorra aritzen omen da halako kiroletan. Uste zabaldua da hori. Egia badu?

Ikuspegi hori asko ari da aldatzen. Nik oso jende interesgarria ezagutu dut kirol honi esker, pertsona oldarkorraren soslai horrekin bat ez datorrena. Klaseak geroz eta jendetsuagoak dira, eta adin askotako borrokalariak ikusten dituzu: batzuk txiki-txikitatik hasten dira, eta jende heldua ere aritzen da. Perfil anitzeko jendea elkartzen gara klaseetan, eta hori ere oso polita da.

Zer giro eta jarrera izaten da borrokalariaren artean?

Umiltasuna nabarmenduko nuke. Bada gauza bat hasieratik asko gustatu zaidana: bizitasun handiko lehia fisikoa izaten dugu, baina gero, elkar besarkatzen dugu borrokaldia amaitutakoan. Nahiz eta zure lehiakideak izan, jendea asko baloratzen duzu. Klasean teknika eta mugimendu batzuk ikasten ditugu, eta gero, ringaren gainean hori praktikara eramaten saiatzen gara. Lehia badago, baina konexio moduko bat ere sortzen da ringaren barruan.

Kirol arriskutsutzat joko zenuke?

Kontaktu kirol bat izanik, beti dago min hartzeko arriskua. Nik ez dut sekula lesio larriarik eduki, baina gerta daiteke. Horren jakitun gara borrokan gabiltzan guztiok. Dena den, lesio neurologikoak izateko arriskua askoz ere txikiagoa da boxeoen profesionalarekin alderatuta. Amateurretan, bi minutuko hiru round izaten ditugu, eta borroka profesionalean, hiru minutuko hiru round. Hau da, borrokaldiak boxeokoak baino askoz ere laburragoak dira.

Arazorik izan duzu inoiz emakume izan eta borrokan aritzeagatik?

Ezetz esango nuke. Ez naiz inoiz baztertua edo iraindua sentitu. Geroz eta emakume gehiago gabiltza entrenatzen. Uleritzen dut duela hogeitaz urte egoera guztiz ezberdina izango zela, baina ni hasi nintzenetik ez dugu oztoporik eduki. Ask



“ ”

Oso jende interesgarria ezagutu dut kirol honi esker, pertsona oldarkorraren soslaiarekin bat ez datorrena

igo da emakume kopurua. Lehen, entrenatu bai, baina askok ez zuten txapelketetan parte hartzen. Orain, ordea, geroz eta emakume gehiago gabiltza lehiatzen, eta uste dut mailaz hobetzen ari garela.

Zu 52 kilotik beherako mailan borrokatzen zara. Pisuari asko begiratu behar diozu?

Aldagai oso garrantzitsua da, txapelketetan aritu nahi baduzu behintzat. Nire pisu naturala hor nonbait dabil, beraz, ez dut jaitsiera handirik behar lehiatu ahal izateko. Ondo daramat pisuaren kontua. Hori bai, urte osoan zenbait xehetasun

zaintzea eskatzen dizu. Ez da dieta bakarrik; bizimodu osasuntsua izan behar duzu orokorrean. Oreka aurkitzea da gako. Nik naturaltasunez bizi dut. Batzuetan zailagoa da; adibidez, txapelketa batzuek lau egun irauten dute, eta horietan goizero pisatu behar dugu, bermatzeko egunero pisu berean goazela lehiatzera.

Mundu mailan ez dago kick boxingeko federazio bateraturik. Horrek gauzak nahasi egiten ditu?

Ezagunena edo ofizialena WAKO (Munduko Kickboxingeko Federazioen Elkarte) da. Adibidez, Espainiako Txapelketa WAKOk antolatzen du, eta guk parte hartzen dugun nazioarteko txapelketak ere horren barruan daude. Alde ona da, gauza asko egiten dituztela. Urte osoan duzu lehiatzeko aukera. Alde batetik, txapelketa ofizialak daude: Munduko Txapelketak, Europakoak... Eta bestetik, “Open” edo “Kopa” deiturikoak.

Turkiako Openean azpitxapeldun izan zinen iaz. Onenen pare aritzeko gai zarela erakutsi duzu.

Oso pozik gelditu nintzen, WAKOren barruan lehiatzen nuen nazioarteko lehen



"Kaiolak bere xarma dauka",
dio Perezek, "baina ringak
esanahi indartsua du
guretzat".

txapelketa zelako. Lau borrokaldi izan nituen hiru egunetan: lehen bietan aurkari turkiarrak izan nituen, finalerdietan kazakhstanar baten kontra aritu nintzen, eta finalean beste turkiar baten aurka. Intentsitate handiko borroka izan ziren, eta gogorra izan zen, baina oso sentipen onak izan nituen. Orain arte izan dudana emaitzarik onena da. Etxetik urrun aritzea zailagoa da, estres handiagoa sentitzen duzu, baina oso esperientzia aberasgarria izan zen.

Zer erronka daukazu aurrera begira?

Pausoz pauso noa. Martxoa bukaeran txapelketa bat jokatu dugu Amsterdamen, eta horra begira nago orain. Hortik harago, arau profetionalekin lehiatzen jarraitu nahiko nuke. Orain

arte bi borroka egin ditut arau horiekin, eta motibazio berria da niretzat. Aldaketa handia da. Noraino heltzeko gai naizen ikusi nahi dut. Txapelketa amateurrek ere asko gustatzen zaizkit, eta bi ildoak jorratzea da nire asmoa.

Zer alde dago arau profetionalekin eta amateurren artean?

Aldere nagusia, babesgarrietan dago: amateurretan kaskoa eta tibietako babesa erabiltzen ditugu; halakorik ez dago, ordea, profetionaletan, eta eskularruak txikiagoak izaten dira. Babesik ez denez, erritmoa oso ezberdina da. Kolpeak hobe pentsatu behar dituzu. Borroka luzeagoak dira, eta kutsu estrategiko handiagoa dute. Zentzu guztietan da gogorragoa. Baina asko erakartzen nau. ●

Dinbi-danba

Ukabilkadak ala ostikoak?

Boxeoko kolpeak asko gustatzen zaizkit, baina ostikoak ere bai.

Indarra ala teknika?

Oreka da gakoa. Ni indartsua naiz gehiago, teknikoak baino.

Zenbat borroka irabazi dituzu K.O. bidez? Eta galdu?

Irabazi asko ez, pare bat-edo. Eta galdu, oraingo, bakarra ere ez. Halere, badakit aukera hor dagoela, jokoaren parte da.

Nahiago babesgarriekin ala babesgarri gabe?

Gabe; finagoa iruditzen zait.

Ringean ala kaiolan hobeki?

Kaiolak bere xarma dauka, baina ringak esanahi indartsua du guretzat.

Idolo bat kirolaren munduan?

Janet Todd eta Rose Namajunas borrokalariak.

Aurkari bat?

Zeliha Dogan, Turkiako Openeko finalean irabazi ninduen turkiarra. Oso indartsua zen, eta baliabide tekniko asko zituen.

Abesti bat borrokan aurretik entzuteko?

Orain arte izan ditudan borroka profetionaletan IRA taldearen *Ladra* abestiarekin ateratu naiz.

Menurik onena borroka osterako?

Hanburgesa eta garagardoa.

Kickboxingean ariko ez bazina, zein kirol egingo zenuke?

Oso kirol fisikoren bat; CrossFita, adibidez.

2. FINALURREKOAK
MARTXOAK 4 LARUNBATA
 BASTIDAKO KULTUR ETXEAN
 19:00 PIKOTSOA
 19:30 SAIOA
 SARRERA LIBREA

BEEEERTSOLARIK (LAUTADA)

ERREXALA (GASTEIZ)

www.bertsozale.eus/araba

Babesle nagusiak

araba álava foru aldundia diputación foral

Vital

LABORAL

udapa

artepan

ARGIA

Zaintza sistema feminismotik iraultzeko prozesuari hasiera emanen diote martxoak 8 kari

Denon bizitzak erdigunean. Zaintzak irauli dena aldatzeko lelopean abiatu berri du epe luzerako mobilizazioa Euskal Herriko mugimendu feministak. Otsailaren 1ean Gasteizen egindako prentsaurrekoan eman zuten dinamikaren berri. Ainhoa Olaso Sopelarekin hitz egin dugu eta azaldu dizkigu finkaturiko helburuak: negozio izatea utzirik, zaintza “erantzukizun sozial” bihurtzea eta “guztiontzako eskubide kolektibo” gisa bermatzea.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Geratzeko etorri da aurtengo martxoak 8ko leloa: *Denon bizitzak erdigunean. Zaintzak irauli dena aldatzeko*. Euskal Herriko mugimendu feministak gaur egungo zaintza sistema errotik aldatzeko prozesua aurkeztu berri duela, dinamika horren baitan kokatu nahi izan du Emakumeen Nazioarteko Eguna. “Epe laburreko borrokak eta arnasa luzeko prozesuak uztartu behar ditugu. Zaintza erregimena eraldatzea sistema osoa eraldatzea dela diogunean, ez gaitza debalde hitz egiten”, dio Ainhoa Olaso Sopela aktibista feministak.

Zaintzak guztiontzako eskubide kolektibo gisa bermatuko lituzkeen jendarte antolaketa batean jarrita helburua, egunez egun, herriz herri, asanbladaz asanblada eta borrokaz borroka egin nahi dute bidea. Hots, mugimendu feministak zurrakitz duen mobilizazio kolektibotik. Martxoak 8 indar horren erakusle izatea nahi dute: “Tokian toki zaintzaren gaia ez da berdin landuko, baina Euskal Herriko txoko ezberdinetan denok aterako gara txapel berarekin, prozesuaren bidetik, eta hori garrantzitsua izango da aurrera begira”. Prozesuarekin bat egiteko deia luzatu diete “Euskal Herriko kide feminista guztiei” Gasteizen egin berri duten prentsaurrekotik. Alantzak

ere nahi dituzte, zaintzaren sektoreko lan baldintzak hobetzearen alde eta, oro har, zerbitzu publikoen alde borrokan dabilzanekin.

Hausnarketak eta mobilizazioak batuz, 2023. urtea kargatua bezain aberatsa izanen dute, beraz, militante feministek. Baina ez dira zerotik abiatzen, eta leloak barnebiltzen duen proposamen politikoa findurik dute. Iazko otsailaren 19 eta 20an Gasteizen eginiko *Zaintza-rako sistema publiko, komunitario feminista baterantz* jardunaldiak mugarri inportante izan ziren, eta hortik ateratako txostena bada dokumentu mamitsua zaintza-sistemari buruzko proposamen feminista hobeki ezagutzeko. Hasteko, erran bezala, zaintzak “eskubide kolektibo” izatea dute helburu. Eskubide hori ez litzateke bakarrik menpekotasun-egoeretarako, “bizi osoan zehar, askatasunez eta konpromisoaz, zaintza eskaini eta jasotzeko” bermea litzatekeelako.

ZAINTZA SISTEMA “PUBLIKO-KOMUNITARIOA”

“Zaintza sistema publiko-komunitarioaren” proposamena landurik dute. Negozio logikatik ateraz, denontzat eskuragarri litzatekeen zaintza “unibertsala eta bidezkoa” bermatuko lukeen eredu publikoari osagai “komunitarioa”

gehitu diote. “Komunitarioaz ari garenean, gehiago ari gara ideologiaz eta gure bizitzeko moduez. Geroz eta individualistagoa izatera garamatzen sistema honetan, ikuspegi komunitarioa galtzen ari gara eta gure arteko zaintza harremanak birpentsatu beharrean gaude. Gure hiri eta herriak ere ez dauke bizitza komunitarioa egiteko pentsatuta, eta horiek aldatzea ere bada gure nahia”, Olasoren hitzetan. Eskubide kolektibo bat izateaz gain, “erantzukizun kolektibo” gisa ere irakurtzen dute zaintza. Horretarako baldintzak zehaztu ditu Olasok: “Desmerkantilizazioa” eta “desfamiliarizazioa”; gizonen partetik “ardura hartzea”; komunitatearen inplikazioa eta harreman sareen sendotzea; politika publikoen aldaketak... Hain zuzen, zaintzak duen alde positiboaz kontziente –“komunaren gaineko erantzukizuna”–, birdefinitu eta berrantolatu beharra azpimarratzen dute, gure etxe, harreman, kale eta herrietako egunez egunekotik hasita.

Arlo komunitarioaren eta publikoaren arteko harremana zer nolakoa izanen den kolektiboki adostu beharko dela dio mugimendu feministak, horrek “gobernantza-eredu berri bat” suposatzen duelako. Institutuzio publikoen pamera “ezinbestekoa” dela diote, tartean,



2020ko martxoaren 8ko mobilizazioetako argazkia.



“Denon bizitzak erdigunean” prozesuaren aurkezpena, otsailaren 1ean Gasteizen.

legearen aldaketak behar direlako: “Egoera konkretuetan zaintzarako eskubidea bermatzeko berariazko politikak sustatuko dituzte, eta, aldi berean, gainerako politikak norabide horretara aldatzeko bultzada izango dira”, Gasteizko txostenean irakurri dezakegunez. Instituzioekin zer nolako harremana izanen luketen galdeturik, Olasok dio ez dela erronka erraza: “Argi dugu egiten ari garen aldarri batzuek ezinbestean instituzioetatik egin beharreko aldaketak behar dituztela. Badakigu ez dela kontu erraza, gauza asko sartzen direlako jokoan (alderdien arteko interesak, alderdiek enpresa pribatuekin dituzten interesak, hauteskundeak...), beraz, ez da egun batetik besterako aldaketarik etorriko”. Hori horrela, ez dute oraindik argi planteamendua: “Zehaztu gabe dugu instituzioekin izango dugun harremana, baina egiturazko aldaketak eskatzera gatoz, eta egiturak mantentzen dituztenak instituzioak badira, orduan zehaztu beharko dugu harreman hori zein izango den”.

Zaintza-sistemaren iraultzeak formakuntza eta pedagogia lan handia eskatzen duela badakite, hori guztia kulturala delako. “Zaintzek merezi duten aitortza soziala izateko eman beharreko aldaketa material eta kulturalak bultzatu beharko dira, eta hemen, hezkuntzak duen rola garrantzitsua izan daiteke”,

“ ”

Geroz eta indibidualistagoa izatera garamatza sistema honek; ikuspegi komunitarioa galduz doanez, gure arteko zaintza harremanak birpentsatu beharrean gaude”

Ainhua Olaso Sopela


Olasoren arabera. “Zaintza eredu eman-tzipatzailea” iparrorratz, “zaugarritasuna eta interdependentzia aitortuko dituen elkarrekiko zaintzaren kultura” zabaldu nahian dabilta. Eredu hori deskribatzeko orduan, ondoko osagaiak zerrendatu ditzakegu: “Zaintza ez da harreman dikotomiko bat, guztiok eman eta jasotzen dugu zaintza bizitzako momentu ezberdinetan”; heteronormatibitate kanpo kokatu beharrekoa da; osasuna eta gorputz anitzen aukerak kontuan hartu behar dira; eta bizitzen –beraz, zaintza-harremanen– dibertsitatea aitortu behar da.

URGENTZIAZKOA: DUINTASUNA ZAINZAILLEENTZAT

Aldaketa sistemiko eta kultural hori ez denez egunetik biharamunera bideratuko, epe laburrean lortu beharreko lehen-tasuna argi dute: zaintza lanen duintzea. “Borroka hau denon bizitzak duintzeko prozesua da, eta horregatik identifikatzen ditugu urgentziazko aldarri moduan atzeritartasun legea edota zaintza lanen erregimena aldatzearena”, Olasok azaldu duenez. Etxeko langileen eskubideen errespetua, zaintzaile guztien erregulazioa, emakume pentsiodunentzako erretreta duina eta erresidentzietako aldarri erantzutea dituzte urgentziaz lortu beharreko eskaeren artean.

Proposamen iraultzailea izanik eta bostere hegemonikoaren jarreraz kontziente, ondokoa zehaztu zuten prozesuaren aurkezpenean: “Krisi hau ez da konpontzen azaleko soluzioekin. Badakigu orain edonork hitz egiten duela zaintzaren garrantziaz. Baina guk ez dugu isilaraziko gaituen promesa faltsurik nahi. Konponbidea ez da digitalizazio handiagorekin izango, ezta ikuspegi ‘komunitarioaz’ era abstraktuan hitz egitearekin ere, non zaintzen feminizazioa eta familiarizazioa erreproduzitzen den. Gure diskurtsoaz jabetu dira edukiz husteko, eta guk proposamen eta neurri zehatzez bete nahi dugu”. Martxoak 8 izanen da eduki horren berri jasotzeko eguna. ●

FIAT Mussoliniren aurka



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Turin, 1943ko martxoaren 5a. FIAT automobil-gintza etxeko Mirafiori fabrikako langileek grebari ekin zioten, “ogia, bakea eta askatasuna” eskatuz. Handik bi astera, Milango Caproni eta Pirelli enpresetako langileek bat egin zuten haiekin, eta, berehala Italiako iparralde industrializatuan 100.000tik gora ziren lan egiteari utzi ziotenak. Apirilean, Mussolini eta Bastianini Alemaniako kanpo ministro Ribbentropekin bildu ziren Salzburgon, eta esan zioten Italiak ezin izango zuela geran jarraitu, grebak zirela eta. Arnold J. Toynbee historialariaren hitzetan, “Europa faxistan agintarien aurka langileek egindako lehen erakustaldi handia izan zen”.

Eta eragina izan zuen, gainera. Urte bereko uztaillean, burgesia italiarrak Mussoliniren ordez agintean Badoglio jartzea erabaki zuen, Mussolini gabe ere faxismoari eusteko ahaleginean. Hainbat historialariren arabera, FIATeko greba Mussoliniren amaieraren hasiera izan zen. Eta ez zen kasualitatea izan mobilizazioak Mirafiorin piztea. Toynbeek berak zioenez, faxismoak boterea lortu zuenean ere “erresistentzia komunista-



Benito Mussolini 1932an FIAT-en hitzaldia ematen, Giovanni Agnelli aldamenean duela.

ren gune nagusia FIATen Turingo fabrika izan zen”. Fabrikako langileez ari zen, jakina, enpresaburuak beste muturrean baitzeuden: artikulua hau laguntzen duen 1932ko argazkian Mussoliniren alboan ageri dena Giovanni Agnelli da, FIATeko sortzaileetako bat, lehen presidentea eta alderdi faxistako kidea.

Duela 80 urtekoa ez zen FIATen lehen greba izan; esaterako, 1920an Piemonte osora zabalduko zen greba Turingo

fabrikan abiatu zen. Eta ez zen azkena izango; 1940ko hamarkada osoan mobilizazioen abiapuntua izan zen, 1962an langile baten kaleratzeak lanuztea eragingo zuen berriro... Eta 1980an inflexio puntua iritsi zen: 35 eguneko grebaren ondoren, FIATeko buruzagiek 40.000 langilek haiekin bat egitea lortu zuten eta, martxa antisindikal baten bidez, desafioa irabazi zuten.

FIATeko azken greba ezaguna 2018an izan zen, Turingo Juventus futbol taldeak Cristiano Ronaldo fitxatzea erabaki zuenean (Agnelli familia, FIATi eta faxismoari estuki lotuta egoteaz gain, Juventus

jabe baita 1923tik). FIATen murrizketak eta kaleratzeak egiten zituzten bitartean, futbolariaren fitxaketan eta soldatan 300 milioi euro xahutzea salatu zuten. Greba uztailaren 15ean hasi zen Melfiko plantan, baina handik bi egunera bertan behera utzi zuten, jarraipen eskasa zela eta. 75 urte lehenago Mussolini gogor kolpatzea lortu zutenen oinordekoak ez ziren futbolaren diktaduraren aurka egiteko gai izan. ●



Vesuviopeko dieta aberatsa

Orain arte bagenekien Pompeia eta Herkulanoko biztanleek itsaski eta oliba olio asko kontsumitzen zutela, eta gizonen eta emakumeen dietak ez zirela berdinak. 2021ean Yorkeko Unibertsitateko adituek ikerketa berritzailea abiatu zuten: Herkulanoko 17 indibiduoren hezurretako aminoazidoak isolatu zituzten. Eta horri esker, batetik, oliba olioak dietan zeukan pisia kalkulatu dute: kon-

tsumitzen zituzten kalorien %12 iturri horretatik jasotzen zuten. Eta, bestetik, menua askoz gehiago zehaztu dute: garia, artatxikia, dilistak, babak, gereziak, mertxikak, olibak... eta Napoliko badiako 70etik gora arrain eta itsaski mota jan ohi zituzten. Teknika hori beste toki eta garai batzuetan aplikatzea eta, hala, antzinako dieta gehiago ezagutzea izango da hurrengo pausoa. ●

BLOG BERRIA



Erleekin dantzan

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Izen hori jarri dio Bidasoan sortutako Erleak Salbatzeko Sareak Argia.eus webgunean ireki berri duen blogari. Balarako erlezainak barroak eta liztor asiarrak azken aldian euren erlauntzetan egindako txikizioarekin kezkatuta, bizi dutenaren berri eman eta ahal dela egoerari buelta emateko neurriak hartzeko hautua egin dute. Bloga irekitzea izan da lehen pausoetako bat.

Itziar Lopezen izena ikusiko dugu lehen lerroan, baina aitortu digu atzetik dituela Juan Mari, Pili, Jesus eta beste hainbat kide, haien esperientziarekin bloga elikatzen laguntzen dutenak. "Azken urtean gutako gehienek gure erlauntza gehienak (edo guztiak) galdu ditugu liztor asiarraren eraso bortitzaren ondorioz eta asko dira kalteen ondorioz erlezaintza utzi duten lagunak", azaldu digu Lopezek. "Egoerari buelta eman nahian ekintza bat baino gehiago ditugu

buruan, baina momentuz liztor asiarrari aurre egiteko lanetan zentratuta gaude. Udaberrian liztor erreginak harrapatzeko tranpak jartzea ezinbestekoa da, gure indar guztia horretan dugu jarrita eta horren berri eman nahi dugu kanal honetan. Baina badira bestelako gai interesgarriak ere, landuko ditugunak: erlezainen egunerokoan sortzen diren egoerak; eta ahal den neurrian urtarorari dagokion horrekin erlazioan izan daitekeko gara. Horrela, erlearen egoeraz, bere zaintzarako teknikez, erlearen gaitzei aurre egiteko baliabideez eta abar aritzeko asmoa dugu", zehaztu du egileak.

Sarearen garrantzia azpimarratu du. Arazoa ez da Bidasoara mugatzen, eta inguruko erlezain eta eragileekin elkarlanean ekitea ezinbestekoa dela diote. Eragileak, bai, erlearen arazoak denon arazo baitira. Polinizatzaile garrantzitsuenetakoa den heinean, ingurugiro

osasuntsu bat izateko ezinbesteko laguna baitugu.

Barroa, liztor asiarra eta nekazaritza intentsiboa ditu etsai nagusi. Aurre egiteko zer? "Lehenari aurre egiteko erlezainen artean sarean lan egin behar dugu, erlezain guztiak kontzientziazteko tratamenduak modu egokian egiteko beharra dagoela; bigarrenaren kasuan, hau oso zabaldua dago, eta tranpak erlategietan bakarrik jarrit gero, ez dago zer egiterik. Ezinbestekoa da tranpen "sare" bat egitea, hirietako eraikuntzetan, parkeetan, baserrietan eta abar kokatuz; eta hirugarrenaren aurrean gizarte osoak aukera du sarearen parte izateko, nekazaritza estentsiboko eta bertako produktuak kontsumituz", azaldu du.

Ongi etorri blogari berriei eta eskerrik asko denon osasunerako lanean aritzeagatik. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Aldizkari independenteak indartu behar ditugulako"

Errenteriatik Oihane

"Benetako kazetaritza zabaltzen saiatzen direlako"

Legutiotik Isabele

"Asko gustatzen zaidalako aldizkaria eta halakoek bizi luze bat ukan behar dutelako, eta paperean ukaitea nahi dudalako"

Heletatik Maikak

"Ona dela uste dudalako"

Markina-Xemendik Jon Koldok

ARBOLA KULTURALA DA, ZIBILIZAZIOA DU OINARRI ETA ZUHAITZA NATURALA DA, NATURA DU OINARRI



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zuhaitzak eta arbolak landatzeko sasoia zela idatzi nuen lehengo astean eta ildo horretatik batek baino gehiagok galdetu dit ea zer alde dagoen zuhaitzaren eta arbolaren artean. Ez al diren bada gauza bera. Gure etxean aitonak eta anaiek zurarekin eta egurrarekin lan egin izan dute, eta guretzat denak arbolak ziren. Gero, alfabetatu ginenean ikasi genuen zuhaitzak ere bazirela. Itxuraz arbolari “zuhaitza” esatea txukunagoa da; “arbola” hitza kanpotarra da eta zuhaitza bertakoa. Gaur ia jende guztiak “zuhaitza” erabiltzen du. “Arbola” izena fruitua, guretzako fruitu erabilgarriaren uzta ematen dutenekin soilik erabiltzen da, frutaondo esaten diegun horiekin (sagarrondo, *Malus domestica*, adibidez) fruta-arbola, fruta arbola, fruitu-arbola eta fruitu arbola. Egunen batean baten batek aurkituko du eta ohartuko da fruta-zuhaitza ere badela hiztegian jasoa eta, akabo, orduantxe amaituko da gure “arbola” hitzaren erabilera. Kuxidadearen izenean edozer gauza!

Eskerrak 2009an Josetxo Azkona Garzia poeta iruindarrak *Arbola naiz, eta zuhaitza* liburua argitaratu zuen. Hor dago jasoa bere deskubrimendua: zuhaitza ez da arbola. Garai hartan irratit bategan egin zioten elkarrizketa zorioneko ezusteko entzuteko egokiera izan nuen. Ederki adierazi zuen zuhaitzaren eta arbolaren arteko aldeaz jabetu zenean zenbaterainoko harridura bizi izan zuen. Eta olerki sail batera eraman.

Liburuaren atzeko azalean honela dio: “Arbolak gara, eta zuhaitzak. Jo dezagun hirira! Gera gaitezen basoan”. Hortxe dago koxka. Arbolak landu egiten dira: hazitik sortu, zeharraldatu,

aldatu, inausi... Zuhaitzek berezko sorrera eta bizimodua dute. Arbolak kulturalak dira; zuhaitzak naturalak. Arbolak zibilizazioa du oinarrian. Zuhaitzak natura.

Josetxok atariko sarrera batekin has ten du liburua eta argi asko uzten kontua. Hona esaldi batzuk: “Baratzezainak ontzitik atera eta tentuz darama eguterrako xoko batera [...]”. Gereziendoa aldagarria da, toki batetik bestera aldatu edo mudatzen delako (dugulako). Arbola da eta ez zuhaitza [...]. Fruitu ahogozagarrak emanen ditu gereziondoak [...]. Honexegatik ere, arbola da, eta ez zuhaitza.

Hagina, gereziendoa ez bezala, ez da haztegieta sortzen. Ez du, bera den modura izateko, inoren obratzerik behar. Izatezkoa da eta iraunkorra, guztiz basa, berez sortua delako basoan edo oiha nean, pagoaren edo ametzaren antzera. Zuhaitza da, eta ez arbola [...]

Gereziendoa eta hagina gara: arbolak eta zuhaitzak”.

Beraz, arbolak etekina ateratzeko lantzen ditugu: fruitua, zura... Eta zuhaitza berezkoa da, ia ukitu gabea. Baina etekina ere kentzen diegu, ezta? Ingurumena, perretxikoak, egurra... Horra zalantza! Denak zuhaitz eta denak arbola. Edo? ●



FELIX BLOT

“EKOSISTEMA ELIKAGARRIAK DISEINATZEN DITUT PERMAKULTURA BULEGOAN”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Felix Blot gazte azkaindarrak 2018tik du martxan permakultura zerbitzuak eskaintzen dituen bulegoa. Senpereko eskolan hasi zen naturaren kudeaketaren inguruan hausnartzen eta ikasten, eta naturako bioaniztasuna eta elikagaien ekoizpena aparteko bi gauza bezala ikusten zirela ohartu zen: “Batetik, janaria ekoizten du gizakiak, eta bestetik, naturan santutegi modukoak egiten ditu, horien babesteko. Bada, ohartu nintzen biak nahasi zitezkeela, alegia, posible zela bioaniztasuna babestuz edo hobetuz gure beharrei erantzutea”. Landetara joan zen hango ekogunean urtebetez baratzegintza biologikoa ikastera, eta ondoren, hartutako bidearekin segituz, permakulturaren munduan murgildu zen.

BARATZEAK “MARRAZTEN”

Bloten hitzetan, ekosistema naturala imitatzean datza permakulturak, sistema horretako zenbait elementu pertsonen beharretara egokituz. “Ekosistema elikagarriak sortzea da ideia, horretarako guneak metodologia berezi batekin antolatuz, sistema natural baten moduan”. Diseinu lan horiek egiten ditu permakultura bulegoan Blotek, berak dioen bezala, “baratzeen marrazkiak”. “Tira, marrazkia azken etapa da, horren giblean pentsatutako gauza asko dago: zer sartzen den ekosistema horretan, elementuen artean zein lotura dagoen...”.

Bulegoko bezeroek Bloten diseinua jasotzen dute, eta horri jarraituz antolatzen dute baratzea edo espazioa. Bestalde, diseinua errealitatera eramateko proiektuak ere egiten ditu gazteak, bezeroek horrela nahi izatekotan. “Gune



horretan elementu guztiak elkarri lotuta egonena dira, ez da ezer egiten beste elementuak kontuan hartu gabe”. Adibideak jarri ditu azkaindarrak, errazago ulertzeko: baratzean ahateak jar daitezke, horiek bareak jaten dituztelako, edo fruta arbolak abereekin nahasi, ardiekin eta oiloekin, esaterako. Horien gorotzak lurra hobetuko du, eta oiloek, gainera, fruta arboletako fruituak jan eta gorotzetan horien haziak zabalduko dituzte... “Horrelako sinergiak sortzen dira”.

PERMAKULTURAKO BESTE PROIEKTUEKIN ELKARLANEAN

Urruñan du bulegoa gazteak, eta permakultura zerbitzuak eskaintzeaz gain, naturopatiaren inguruko formazioa jasotzen ari da. “Arrunt lotuta dago hori ere permakulturarekin. Gorpu-

tza ekosistema moduan begiratzea da kontua, desorekak berriz orekatzea”, dio. Permakulturaren bueltan Ipar Euskal Herrian martxan diren beste zenbait proiektuekin –Maia Permaculture edo Ereinez Hazi-rekin, esaterako– ere harremanetan dago Blot, eta elkarlanaren eta sarearen garrantzia azpimarratu du. “Ekimen asko badira Iparraldean, baina ez dago harreman handiegirik. Hori da ene ustez hurrengo etapa: proiektu horiek guztiak saretea”.

Bide horretan, zenbait lagunekin elkarrekin bat sortu berri du Blotek, Urruñan inguruan ekogune pedagogikoa martxan jartzeko: “Orain ere joaten naiz eskolara animazioak egitera, baina elkarrekin gunea lortzen duenean horrelako gehiago egitea da ideia”. ●

“ ”

“Inoizko musika-estandarizazio maila altuenean gaude”

Jokin Azpiazu Olor

Esperantza argitaratu du Olor-ek, bere ibilbideko bigarren lana, oinarri elektroniko-industrialen eta melodia poperoagoen artean balantzaka dabilena. Esperimentazio erabatekora iritsi gabe, entretenimenduaren lengoaia konbentzionalari ihes egin nahi dioten bederatzi abestik osatzen dute lana. Gizarte eraldaketan buru-belarri dabilenaren kezkak eta desioak sumatzen dira hitzetan: borroka tradizio batekiko leialtasuna, lehengo belaunaldien ekarpena orainaldira –eta etorkizunera– ekartzeko saiakera, denari su emateko bulkada, eta ondoren korrika ihes egitekoa.

KEPA MATXAIN DANI BLANCO

Gitarra elektrikoaren soken artean bihurkin bat sartu eta soinuarekin esperimintatuz hasi zen Jokin Azpiazu (Ermua, 1981) musikaren munduan. Geroztik hainbat taldeetatik igaro da –PAM, Después de Nunca edota Occhi di Farfalla-tik, kasurako–, eta 2017an abiatu zuen Olor, bere ibilbideko apusturik pertsonalena, Maialen Belaustegiren proiektioez eta Ander Barriusoren soinuaz lagundurik. Bere hasierako froga esperimental haien oihartzunekin lotzen du proiektua, orduan zein egun antzerako zerbait bilatzen duelako: “Soinua eta musikaltasuna elkartzen diren toki hori topatzea”. Ez du bere burua erabateko esperimintazioan abila sumatzen, ez eta erabateko konbentzioan ere. “Nahi dut jendeak abestien musikaltasuna ezagutzea, baina era berean ez dut inoiz musikarik ikasi, ez dakit konposatzen, eta ezintasun hori erabiltzen dut beste zerbait egiteko”.

Edonola ere, ez batean ez bestean kabitu ezina bere bizitzako gai handietako bat da. Musikari ez ezik, soziologoa da, ikerlaria, unibertsitateko irakaslea eta LGTB aktibista, besteren artean. “Kostatzen zait gauza bakoitzari bere lekua topatzea, ez dudalako ezer askatzen. Beti daukat sentsazioa ez dudala ezer ondo egiten. Baina, bestalde, esan izan didate agian bertutea hor dagoela. Saiatzen naiz soziologiara eramaten musikan ikasitako gauza pila bat, aktibismora soziologian ikasitakoak... halaberharrez, alde batetik besterako zubiak egiten ditut etengabe”.

Nonbait irakurri dizut Olor-ek baduela deserosotasuna pizteko asmoa. Zein deserosotasunez ari zara, eta zein bide darabilzu horretarako?

Ez nuke esango deserosotasuna sortu nahi dudarik %100ean. Baina entretenimendua bere horretan ez zait batere interesatzen: ez estetikoki, ez bisualki, ez soinuari, ez letretan. Musikariek –beste gauza guztiek bezala– zerbait eragin behar didate.

Izan daiteke eragin alaia eta pozgarria, baina sekula ez entretenigarri hutsa. Adibidez, [tabernako bozgorailua seinalatuz] The Police-k entretenitzen nau. Bada The Police-k ez dit ezer esaten –uste dut ez diola inoiz inori ezer esan–. Musika gus-tatzen ez zaion jendearentzako musika da. Entzun dezaket gustura, baina nire beharren %1a aseko du. Nik behar dut musikak mugitu nazala alde batetik bestera, *malaletxean* jarri, energia eman, edo beheraldia... Baina era berean ez dut nahi zuzenekoetan espazio erabat deserosoa sortzerik, arriskua dagoelako –noise-arekin-eta gerta daitekeen bezala– jendeak amaitzeko kaña bat hartzen zuri batere kasurik egin gabe. Hori da nire anbizioa: ez dit axola norbaitek kontzertuaren erdian martxa egiten badu, baina kañak hartzen ari direnentzako atzeko musika bilakatuko banintz, hilko nintzateke. Saiatzen naiz estetikoki erdibide bat bilatzen: abesti bat oso atsegina iruditzen bazait, zarata gehitzen diot; edo, kontrakoa bada, armonia bat, akorde progresio logiko bat.



Zeri deitzen diozu entretenimendua? Konbentzioa bera erreproduzitzeaz haragoko dimentsiorik ez duen musika horri?

Bai, halako zerbaiti. Azkenaldian izugarri ugaritu dira jendeari kantu on bat nola egiten den azaltzen dioten *youtuberrak*, *instagramerrak* eta *tiktokerrak* –soinu urbanoen eta traparen leherketaz geroztik, batez ere–. Esaten dizute bonboak eduki behar dituela frekuentzia jakin batzuk, baxua nola ekualizatu behar duzun, eta konposaketa aholkuak ere bai: lehen estribilloak halakoa behar du, eta abar.

Gizateriaren azken ahalegin desesperatua dira, laster algoritmo batek lan hori beraiek baino hobeto egingo baitu. Hori saihestu nahi nuke: funtzionatuko duen abesti bat nola egin badakidala pentsatzea. Eta oraindik ez dakit, baina zerbait berria ikasten dudanero beldurtzen naiz, ez ote dudan amaituko eredu hori estandarizaziora aplikatzen. Saiatzen naiz izpiritu hori esparru guztietara eramaten, baita zuzenekoetara ere. Badakit zerk funtziona dezakeen, baina formula errepikatzen amaitzerik ez dut nahi. Inoizko estandarizazio maila altuenean gaude.

Bertako eszenaz ari zara, ala oro har?

Orokorra da, bost urte daramat han-hemen bonbo berbera entzunez. Eta Euskal Herrian, denok pentsatu dugu orain oso modernoa dela sintetizadoreak erabiltzea, erosi dugu sintetizadore berbera toki berberean, eta efektu berbera dute kanta guztiek. Halere, estandarizazio maila altuarena ez da auzi estetiko hutsa; ikusi bestela jendeak zer eskatzen dion bere musika ibilbideari. Ematen du denok idatzi diogula gure karrera musikalaririk buruzko eskutitz berbera Olenztzerori. Batzuetan beldurgarria da. Ezjakintasun kontua ere bada, ez ditudalako kode eta eszena berri horietako asko kontrolatzen, eta horren ondorioz xehe-tasunak galtzen ditut. Baina bistakoa da lausotu egin dela kontrakulturaren eta ofizialtasunaren arteko talka. Batzuetan onerako –ikasi dugu punk soinuak ez zaituela ezinbestean kontrakultura bilakatzen–, baina beste batzuetan oso akritikoki hartzen ditugu soinu batzuk. Eta, noski, soinuak ezin dira moralizatu, baina pentsa dezakegu zer eta zergatik erabiltzen ari garen.

Zure kasuan, estandarizazio horretatik ihes egiteko keinua al da diskoa Spotifyra ez igotzea?

Erresistentzia txiki bat da hori. Ez dakit noiz arte iraungo duen... Tabakoarekin bezala, uzten duzu baina agian berriro erortzen zara. Katxondeoa iruditzen zait nola ia inork ez duen zalantzan jartzen abestiak Spotifyra igotzea. Nola ez dugu honetaz hitz egiten? Automatiko ki aurrera, eta listo? Talde gazteak, beteranoak, politizatuak, ez politizatuak, zerk elkartzen gaitu? Spotifyk. Infernu hutsa da. Muturren parean daukagu informazio dena: plataformako langileen esplotazioa, musikariei ematen zaien miseria... zer gehiago behar dugu? Ikuspegi komertzialetik, nik ez diot zertan galdera hori nire buruari egin, badakit, eta hortik bizi nahiko banu beste era batetara pentsatu beharko nuke. Ados. Baina inork ez du ezer planteatu behar? Esango nuke gurean Ainara Le Gardon soilik entzun dudala horri buruz hitz egiten.

Hitz egin dezagun diskoaz. Zure lanik baikorrena bezala aurkeztu duzu *Esperantza*.

Tira, apur bat gezurra da. Bizitzaren erdia igaro dut pentsatuz guztiak su hartzea nahi dudala, eta beste erdia, be-

rriz, pentsatuz guztiak su hartzen duen uanean beldurtu egingo naizela eta korrika ihes egingo dudala. Mundua oso gaizki dago, eta benetan uste dut ueña dela praktika iraultzailerako. Dena erre beharko genuke, horrek har ditzakeen forma guztietan –ez du zertan indarke-riaren bidez izan–. Ez da tetrabrik-a tetrabrik ekologikoarekin ordezkatzeko ueña: oso garbi daukat dena pikutara bidali behar genukeela, eta behingoz kapitalismoarekin akabatu. Baina gauza horiek gertatzea beldurgarria da, ondorioak dituelako. Tentsio horretan mugitzen da diskoa.

José Esteban Muñozek badu Ernst Blochen *esperantza* kontzeptuaren berrikuspen *queer* bat. Blochentzat, *esperantza* da denbora lerroaren *loop* antzeko zerbait: iraganeko zerbait ekartzen dugu orainaldi, orainaldi hori etorkizunera proiektatzeko. Ez da *esperantza* kristaua –“dena ondo joango da”–, baizik eta esatea historian zehar badirela aurrekari asko erakusten dutenak gauzak gure esku hartzen ditugunean alda daitezkeela. Iraganeko ideiak orainaldi ekartzeak etorkizuna eraldatzeko praxia sor dezake. Muñozek bilatzen du *queer* denborazkotasun bat, eta esaten du *esperantza* balia daitekeela orainaldi eraldatzeko, eta ez geldirik egoteko. Martin Bidaurrek badu poema bat *esperantza* lotzen duena esperoan egotearekin, eta arrazoia du, hori delako terminoaren esanahietako bat. Bada hau kontrakoak litzateke: *esperantzak* balio du esperoan ez egoteko –esperoan egotea antiesperantza da–.

Disko honek *esperantza* berreskuratu nahi du politikoki. Zer esanik ez pandemiaren ondoren, entzun ditugunean milaka mezu esanez honek pertsona hobeak egingo gaituela. Nik ez darabilt *esperantzaren* ikuspegi humanista hori. Kontua ez da gizateriaren alderdi ona berreskuratu dezakegula, kontrakoa baizik: sortu dezakegula oraindik ezagutzen ez dugun zerbait. José Val del Omarrek badu esaldi borobil bat: “Fedea, ikusi ez genuena sinestea baino, ikusten ez duguna sortzea da”. Iragana berreskuratzen dugu, ez nostalgiagatik, baizik eta jakiteko, adibidez, 80ko hamarkadako grebetan herri osoak jarri zirela kapitalaren aurrean, edo 1936an Bartzelona osoa kolektibizatu zela, edo euskaldunok izan ditugula antolaketa modu horizontalak, urte luzez funtzionatu izan dutenak. Ideia horiek orainaldi dakartzaguz gauzak mugitzeko.

Diskoko letra gehienak kolektibobaten esperantzaz ari dira –nitasunetik ari direnean ere–. Ez da salbazio indibidualik bilatzen.

Benetan sinesten dut bakarrik ezin dugula. Tira, nahi baldin baduzu bizirautpen ariketa bat egin, segi ezazu bakarrik, eta helduko zara zure egunen amaierara. Baina ezin da ezer irauli ez bagara kolektibotik abiatzen. Askok diote greba gehiago eta terapia gutxiago behar ditugula... nik uste dut greba gehiago behar ditugula. Terapia gutxiago? Ez dakit, uste dut jende batek behar duela terapia, egiten duenean on egiten diola –eta digula–. Ez nago terapiaren kontra, nago grebaren alde. Aldiz, indibidualizazioaren kontra banago. Terapeutizazioa eta indibidualizazioa ez dira sinonimoak, baina egun horrela artikulatzen ari dira, eta ez zait gustatzen. Uste dut elkar topatu behar dugula, hemen gaudenok eta ez daudenak, aurrera egiteko. Diskoan ni-rik ageri bada, norabide horretan ageri da.

“ ”

Hori da nire anbizioa: ez dit axola norbaitek kontzertuaren erdian martxa egiten badu, baina kañak hartzen ari direnentzako atzeko musika bilakatuko banintz, hilko nintzateke”

Maite Mursegok eta Trusty rapeatzaileak kolaboratzen dute abesti banatan. Nolatan sortu zen beraiekin lan egiteko aukera?

Maite 15 urte neuzkanetik ezagutzen dut, oso lagunak gara, abentura asko bizi izan ditugu elkarrekin, eta saihestezina zen lehenago edo beranduago berarekin zerbait egitea. Trustyrena desberdina da: sareetatik ezagutzen dut, txiripaz. Madrildarra da, Bartzelonan bizi da, eta urte mordoa daramatza rapean. Guztiz txunditzen nau: marika kutsuko letrak abesten ditu, oso esplizituak, baina aldi berean panfleto izatetik urrun daudenak. Oso makarra da, iluna eta desatse-

gina, baina era berean entzuten jarraitzeko gogoia pizten du. Ez du abesten maitasun homosexual arruntaz, zerrieriez baizik –gerontofilo sutsua da–. Lagun batzuen laguna da, eta bere kolaborazio bat nahi nuela erabakita, idatzi egin nion Instagrametik. Abestia bidali eta ordubetea bueltan bidali zidan bururatutakoa. Uste dut kontraste ona egiten duela, eta kutsu nihilistago horrek abestiaren tonua orekatzen duela.

Zer da zuretzat “paradisu sozialista”, Hamar aldiz kantuan aipatzen duzuna?

Lehen aipatutako *esperantza* horri zuzendutako abestia da. Une batean esaten dut: “Hegan hasi orduko hotzak ez digu utziko lorik hartzen”. Egun lozorro egoera oso gaitz batean gaude, baina gauzak piztearekin bat esnatu egiten zara, eta esnatzean beste zentzu batzuk esnatzen dira. Eta, benetan, ez da oso zaila jakiten non dagoen arazoa: bada-kigu makila non sartu behar dugun, zein den saboteatu beharreko makina, eta horrek eramango gaitu gozamen espazio batetara. Abestian bada txantxa bat sozialismoaren inguruan egiten diren irakurketa oso normatiboez eta heterosexualez pixka bat trufatzeko. Niretzako paradisu sozialista da edonork edonori zakila, alua, edo nahi duena jaten dion leku zoragarri bat. Arimak elkarri jaten dizkiogun leku hori, nolabait. Plazera aldarrikatzen dut, noski, baina ez plazer hedonista eta indibidualista. Kapitalismoaren atea igaro nahi badugu komunismora –libertariora, nire kasuan– heltzeko, ez da epika batengatik, baizik eta plazeragatik, badakigulako askoz hobeto biziko garela, askoz gehiago disfrutatuko dugula, askoz hobea izango dela dena. Hobeto bizi nahi dut, eta horretarako borrokatzen dut.

Zerua urez azken abestia da, ziur asko, denetan poetikoena. Besteetan baino tonu pertsonalagoa darabilzu.

Bai, abesti horrek zentzu galtzeaz hitz egiten du. Zenbaitetan iruditzen zaizu denak zentzua galtzen duela, zeruan ez dagoela airerik, ezin dela arnastu. Irauten du tarte bat, eta gero badoa, eta zentzua hartzen diezu gauzei berriro, baina irauten duen bitartean... Gelditzen zara zulo batean, eta une batez ez dago hutsunea besterik. Igerilekuaren metafora biltzen du abestiak: piszina batean zaude, uretatik burua atera ezin duzula; aldi berean piszina bat da, ez da itsasoa,



baina ezin duzu burua atera... letrarik pertsonalena eta zaharrena da, lagun baten heriotzarekin bizitzako momentu gogor batean idatzia.

Gainontzeko abestiek kutsu politiko agerikoagoa dute. Esaterako, Handienan diozu: "Diruarekin amets egiten duena hil egingo da".

Aitaren aldeko aitonaren esaldi batetik dator. Komunista zen, abertzalea eta kartzelan igaro zituen zenbait urte. Esaten omen zuen ez zela larregi fidatzen beti diruaren atzetik zebiltzanekin. Iru-ditzen zait batzuetan oso oinarrizko ideiak berreskuratzea garrantzitsua dela, eta esatea, adibidez, "ez zaitezte fidatu aberastu nahi duten musikariez,

“ ”

Disko honek esperantza berreskuratu nahi du politikoki"

ez dira jende ona". Berdin zait rapeatzaile "maloteak" diruditen, super *LGTB friendly* diren, edo super abertzaleak diren. Aberastu nahi badute, ez dira jende ona. Ez dago aberastu nahi duen jende onik.

Belaunaldi berrietan –batez ere "musika urbano" delakoa egiten duten askorengan– sumatzen da diskurtso komun bat azkenaldian: kontraesankortzat jo daitezkeen hautuak sarri justifikatzen dituzte musikatik duintasunez bizitzeko ordaindu beharreko bidesari bezala. Ez ditut epaitzen jendearen nahiak. Baina langile klase posearen atzean edozer baleko dela pentsatzea... Begira, langile familia batean hazi nintzen, nire herria langile klasekoa da erabat, eta betidanik oso garbi eduki dut biziraupenak eta etikak ez dutela zertan kontrajarriak izan. Musikaria izatea oso zaila da, eta ulertzen dut bidesariak ordaintzea –zer esango dizut nik unibertsitatean lan eginda–. Baina horrek ez du dena justifikatzen. Nahiz eta larri ibili, ezin da edozer gauza egin aurrera egiteko. Sinatzea, adibidez, edari edo arropa marka jakin batekin hitzarmen bat, haiei publizitatea eginez... barkatu, baina ez. Jendeak gauza zail asko egin behar ditu bizirauteko, asko ez dira nire gustukoak eta ez ditut epaitzen. Baina kontuz langile klasekoa zarela esanez edozer justifikatzearekin. Duintasuna eta klase kontzientzia elkartuta doaz.

RIPen Eskoria abestiaren bertsioa ere biltzen du diskoak. Zergatik omenaldi hori?

RIP asko miresten dut, hainbat motibogatik. Hasteko, beraiek izan zirelako lehen belaunaldi hartako talderik amorratuena –Vomitorekin batera–. Inork ez zeukan *malaletxe* hori, ile guztiak tenete jartzen dizkidate. RRV delakotik beraiek dira nire talde erreskatagarriena. Ez dakit inork lortu ote duen hainbeste hain kanta gutxirekin: lau abesti dituzte Eskorbutorekin partekatutako diskoan, eta beste hamalau *No te muevas!* diskoan. Gero ezagutu ditugu maketa batzuk ere, baina oso abesti gutxirekin legenda izan ziren –eta dira–. Baina, batez ere, miresten ditut beraien ibilbideagatik. Oso historia gogorra dute talde bezala... Ez zuten itzulera erridikulurik egin; mugimendu jakinentzat garrantzitsuak ziren ekitaldietan jotzeko batu ziren: HIES-aren kontra, Jarrairen Topagune batean... Alegia, hori ere ondo egin zuten. Konparatzen baduzu RRVko beste batzuen deriba beldugarriarekin, RIPena zoragarria da: konpromiso politikoari eutsi zioten amaierara arte. Inork nire omenaldirik merezi bazuen, beraiek ziren horiek. ●

JUTTA KOETHER

Irauten ez duten irudiak

Georgia O'Keefe artistak Mexiko Berrian zonalde malkartsu eta menditsu batekin egin zuen topo 1940. urte inguruan; haren lurra beltz kolorekoa zen, eta beltzak ziren magaletako forma bihurri eta leunak ere. Paisaia horrek txunditu egin omen zuen, izan ere, pintura asko egin zituen leku hori oinarri hartuta. *Black Place* (Toki beltza) izena eman zion Aztek ondoan dagoen zonalde menditsuari. Jutta Koether artista alemaniarrek titulu bera erabili du Artium Museoan duen bakarkako erakusketa izendatzeko: hogeina pintura beltzez osaturiko bidaia.

 JONE ALAITZ URIARTE  ANDER SAGASTIBERRY

Korridore ilun eta huts baten barrera nabil pasean. Atzetik Ivan Zulueta erakusketako soinuak heltzen zaizkit distorsionatuta. Nolabait, arraroa egiten zait ezerez honen artetik igaro beharra, hustasuna zeharkatu beharra. Korridorearen bukaeran zerbait distiratsua begizatzen dut, eta gerturatuz batera, elementu ezberdinen elkartari esker, forma hartzen dioan konposaketa bat antzematen dut. Emakumezko baten forma asma dezaket metal xaflekin egindako osaketa horretan. Oraindik ez dakidan arren, gerora ohartuko naiz Koetherren margolanak deszifratzeko beharrezkoa izango dudala beti oso gertutik begiratzea, barruraka, belztasun horren barrenera. Tonalitate beti beltz, batzuetan koipetsu, beste batzuetan distiratsu edota dentsoetan baitaude artelanaren muina eta bihotza, taupada diren aipu, erreferentzia eta sinboloak. Bizitzan bezalaxe, hemen ere gerturatzea da kontua.

Jutta Koether (Colonia, Alemania, 1958) margolaria dela esan genezake, baina bidezkoagoa da esatea pinturatik beste diziplina askotara gerturatzen dela, izan testura, musikara edota performance. Alemanian jaio bazen ere, 90eko hamarkada hasieratik New Yorken (AEB) bizi da eta bertako eszena artistikoak eta musikalak bere lanean eragina izan du.

Punkak, DIY filosofiak eta lo-fi akaberek bere lanetan oihartzuna dute; era berean, artearen historian mugarri izandako artelan, margolari eta mugimendu artistikoen islak ere ageri dira bere magoetan, era soil eta meditatuan. Artearen historia kanonikoa –liburuetan eta eskolan ikasi dugun kontakizun lineal eta nagusiki maskulinoa– kolokan jartzen du apropiazioaren, kopiaren eta desitxuraketaren bitartez, pintura diziplina “tradizionalki maskulinoa” auzitan jartzeko eta pintura beretik genealogia berriak eraikitzeko. Artistak 1987. urtetik gaur egunera arte egindako lanen aukeraketa ikus daiteke Artiumen, museoko horma zuriak tanta ilunez estaltzen dituen proposamena.

Gustura egin dut topo ordurarte ezezaguna zitzaidan artista horren lanarekin. Eta gustura egin dut museorako bidaia ere. Izan ere, orain urte batzuk gurean inoiz egin ez diren emakumezko artista *mid-career*-ei eskainitako erakusketa monografikoak programatzen hasi dira Artiumen, taxuzko lan kuratorial baten bitartez genealogia interesgarri bati ekinez: Moyra Davey (1958), Katinaka Bock (1976), Mariana Castillo Deball (1975) eta oraingo honetan Jutta Koether (1958). Tankera honetako proiektuen bidez, nazioarteko arte eszenan aktiboki parte hartzen duten artisten lana modu zabal batean ezagutu dezakegu etxean,

eta euren ibilbide artistikoa ikertzeko aukera zabala eskaintzen zaigu.


Aretoko arkitekturak erritmoa ematen dio erakusketari, eta lanen multzokatzeko zaindu bat egiteko erraztasunak ere ematen ditu. Egia esan arreta eman dit diseinu espazialak: guztia dago horma perimetralean zintzilikatuta, erdiko espazio handia hutsik dago, eta agian horrek pausatzen du bisita; obra bakoitzari eskainitako denbora luzatu egiten da, erritmoa, nolabait, geldotu egiten da, eta bisitariak urrundu eta gerturatze mugimendua egingo du tamaina eta akabera ezberdineko obra horien errailetan zer ezkutatzeko den ikusteko. Gerturatze eta urruntze koreografia behin eta berriro errepikatzearen ondorioz badago zerbait performatiboa obra hauei begiratzeko moduan. Koetherren margotzeko erak berak ere badu performatibitate horren zantzua, non mugimendua, berehalakotasuna eta materialen aukeraketaren prekariotasuna artelan askotan nabari daitekeen. Aretoko sabaiko zertxak erakusketan barneratzen zaitu, poliki-poliki, eta erakusketako obra zentrala partzialki estaltzen badute ere, polita da gerturatu ahala –berriz ere gerturatzen– gure aurrean zabalduz dioan *Touch and Resist 5 (after Rubens copying Tizian)* [Ukitu eta Eutsi 5 (Rubensek Tiziano kopia ondoren)] margolan ederra aurkitzea. Horma



luze batean dagoen artelan bakarra da ia bost metro zabalerako oihala, eta Koetherrek obra horrekin egin duen operazioa bere lan egiteko moduan perspektiba feminista txertatzeko ekintzaren lekuko da.

Kasu honetan, artistak Tizianoren *Festa degli amorini o Omaggio a Venere* (Venusi eskaintza, 1518-1520) artelana kopia du, oihala lurrean jarrita eta exekuzio azkar baten bitartez. Tizianoren margolana kopia egin du, Rubensek ere egin zuen bezala. Halako operazioak maiz egiten ditu, obrak desitxuratuz, bere eginez, kopiatuz edo bertan kontatzen den istorioa moldatuz. Azken horren adibidea da *Leibhaftige Malerei* (Gorpuztutako pintura, 2007), non Botticelliren eszena biolentoa eta matxista saihesten duen pintura horren bertsio eguneratua margotuz. Koetherrek inongo zalantzarik eta ironiarik gabe ekiten dio kopiatzeko ekintzari, pinturan berariazko ekintza balitz bezala. Berak dioen bezala, "*nire floraren inperioa, Poussin eta Twomblyri jarraituz, edo nire oihan-paisaiak, Henri Rosseauri jarraituz, 'betiko desegiteko' munduak dira. Meta-ordezkaritza eta bi-tartekoen bidez gidatzen da beti. Gorputza bera bezala. Eta horrelako gorputz batek beste gorputz batzuetatik ikasten du. Irudi batek beste irudi batzuetatik ikasten du*".

80ko hamarkadan, beren historiaren genealogia propioa sortzeko, emaku-



mezko artista askok artearen diziplina tradizioaletatik ihes egin zuten –pintura, eskultura–, oraindik idatzi barik zegoen arte mota bat abiarazteko hutsetik, iraganeko karga eta herentzia maskulinorik gabe. Hor txeratzen dira, adibidez, performanceak, akzioak eta *happeningak*, eta VALIE EXPORT edo Carolee Scheemann izan ziren, besteak beste, beren sorkuntza eta nahiak adierazteko eszena berrien bila aritu ziren artista feministak. Baina Koetherrek pinturan bertan eragin nahi du, pinturan bertan egin nahi du transformazioa, artearen diziplinen artean "maskulinagoa" den horretan. Horregatik, Botticelli, Rubens, Gauguin edo Twombly artisten zantzuak identifikatu ditzakegu pinturaren termino beretan. Koetherren arabera inongo irudik ez du irauten bere baitan, baina


badira biziraun egiten duten irudiak, eta horietan jartzen du arreta eta horiei jarraika egiten du lan artistak, eteten ez den hari bati tiraka.

Gasteizen Koetherren margolanak dira ikusgai daudenak, baina bere alderdi musikala ere nabarmentzekoa da. Sonic Youth-eko baxujolea zen Kim Gordonekin izaera performatiboa duten emanaldiak eskaintzen ditu, eta emanaldi iradokitzaile horietan bat egiten dute zaratak, ahotsen xuxurlak, gitarra baten distortsioak eta Koetherren pinturen proiektzioek. Ikuskizun horien tonua haztatzeko, merezi du Interneten saltseatzeak. Koetherren testuak ere aurkitu daitezke nazioarteko hainbat arte aldizkarietan, garaikideak dituen artisten lanak iruzkintzen eta pinturaren tradizioan zirrikitu berriak zabaltzen. ●



LIBURUA

Hotzaren edertasuna



DANI BLANCO

ALASKA

CASTILLO SUAREZ

ELKAR, 2023

MADDI GALDOS ARETA

Elurrez betetako liburua eguzkiak epeldutako egunetan heldu zai-gu esku artera, paradoxikoki edo. Neguak izango du oraindik zeresanik aurtan, ordea, eta akaso izango ditugu bisuts, gesal eta elurtzak berriro: horiez eta gehiagoz betetako liburua dugu Castillo Suarezek (Altsasu, 1976) plazaratu berri duen *Alaska* (Elkar, 2023) poema-bilduma. Bere jaioterriko errepide bazterrean zen baina aspaldi abandonatuta dagoen hotelaren izena eman dio Suarezek bildumari, eta 54 olerkiz gain, sarrera narratibo bat ere jaso du bertan.


Abandonua, galera eta doluaren gaiak dira nagusi orriotan, baita horiei lotzen zaizkien memoria, oroimina eta ahanztura ere. Gaiok, jakina denez, ez

dira berri altsasuarraren idazketan. 2019an argitaratu zuen *Irautera* (Elkar, 2019) lanak ere bide horiexek arakutzen ditu besteak beste, eta nabariak dira bi bildumen arteko zubiak: *Irautera* badu elurrik, eta bada landarerik Alaskan. Dagoeneko onduta zituenak berreskuratu zein berriak sortuta, irudi poetiko indartsuak darabiltza Suarezek lerrootan: pasabidean pilatutako puskak, itsaso bulartuak, apalategiatako hutsa eta betetako kutzak, eraiste zorian fatxada irmo mantentzen duten etxeak, azal zatiak, orbainak eta zauriak, habi eta igerileku abandonatuak, animalia basa eriak...

Ni poetikoa ere minak hartuta azaltzen zaigu maiz, gotorleku duen baina guttiz eroso ez zaion giro edo paisaia

sinboliko hotzaren parte den gorputz bilakatuta: "Batzueta elurra hondartzaraino iristen da, / elurra elurraren gainean, / eta zuritasuna irensten hasten naiz / nire izena hondarretan aurkitzeko: / hemen da elur-minez bizi den emakumea, / isiltasunaren begiztatzailea, / bere buruaren arerioa".

Baina ez da oro min edo etsipen, inoiz ez omen baita berandu hutsetik hasteko, eta min ematen digunak alda gaitzakeelako. *Doluaren aroak* poema horren adierazle dugu, eta idazketak edo, oro har, literaturak auziotan duen lekuaz poetak egiten duen hausnaraketaren isla ere bada liburua bera. Hondamendiaren ederraren erakusgarri baitira olerkiok, aurrera edo irautera ekiteko akuilu. ●



MUSIKA

Opus Liricaren ahalegin berria

FITXA

Kursaal Eszenak aurkeztutako Leoncavalloren *Pagliacci* opera.

Opus Lirica Orkestra.

Zuzendariak: Iker Sánchez, Santa Cecilia Abesbatza. Laida Otaduy, Promusika Abesbatza. Alain Ayerdi, Easo Abesbatzaren Eskolaniak. Gorka Miranda.

Bakarlariak: Nacho Guzmán (tenorea), Ainhoa Garmendia (sopranoa), Hao Wen eta Pau Armengol (baritonoak), Aitor Garitano (tenorea).

Eszena-Zuzendaritza: Pablo Ramos eta Carlos Crooke.

Lekua: Kursaal Auditorioa.

Data: otsailaren 18a.



MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Batzuetan, gozamenerako ez ezik, gizartea gai jakin baten inguruan kontzientziatzeko ere programatu daiteke jarduera artistiko bat. Hori izan da Opus Liricaren asmoa Leoncavalloren *Pagliacci* opera publiko donostiarraren aurrean aurkezteko orduan. Opera honetan jeloskortasunak eta emakumearen ganako mespretxuak dute protagonismoa. Argumentua XIX. mende amaierako Italia sakonean gertatzen da. Egia esan, denbora asko igaro eta gizartean aurre-rapen handiak egin diren arren, emakumeen aurkako indarkeriak eta emakumeen mendekotasun harremanak ez dira nahi genukeen guztia aldatu.

Goazen gai artistikoa aztertzeraz. Lehenik eta behin, antzezpenaren abiapuntu den kontzeptu eszenikoari erreparatu behar diogu. Zerbait klasikoa-ri *twist* bat ematea ohikoa da, askotan ikusi dugu. Baina batzuetan bira txiki

horrek ez du zentzurik, edo ez dio obrari ekarpen handirik egiten.

Kasu honetan originaltasun elementuak egon ziren. Eta originaltasun hori, oro har, eszenatokiaren gainean pertsona eta elementu gehiegi egotean oinarritzen zen. Zalaparta handiegia agertokian. Koruko kideak ikusle gisa, gertakarien lekuko, dantzari zentzugabe samarrak, pailazoei ustez eragiten zieten hariak... Dena gehiegizkoa. Arreta galtzea eragiten zuen benetan garrantzitsua zen horren-gan, gertaera artistikoaren gainean, eta publikoari helarazi nahi zitzaion mezuan.

Ahots arlora pasata, bakarlarien emeraldia eraginkorra izan zen, baina agian eraginkortasun horretatik ere ez zen pasa.

Ainhoa Garmendia, Opus Liricaren zuzendaritza artistikoa eramateaz gain, soprano bikaina da, eta Neddaren papera xarmaz interpretatu zuen. Oso une ede-

rrak izan zituen (adibidez, *Qual fiamma avea nel guardo*, zinez polita), nahiz eta papera ez izan agian bere ahots dohainei distira gehien ematen diena.

Nacho Guzman tenoreak Canio antzeztu zuen, Neddaren senarra. Proiektzio ona erakutsi zuen, nahiz eta bere fraseaketa hobea izan zitekeen. Hao Wen eta Pau Armengol, biak baritonoak, Tonio eta Silvoren roletan hurrenez hurren, juxtu geratu ziren proiektzioan, baina beren paperak erraztasunez eta eraginkortasunez egin zituzten.

Santa Zezilia Abesbatzak, Easo Abesbatzaren Eskolaniak, Promusika Abesbatzak eta Opus Lirica Orkestrak une on eta txarrak izan zituzten, baina beren lana zuzen egin zuten uneoro.

Jakina, Opus Lirica zoriondu behar dugu ahalegin handiagatik, batez ere kontuan hartuta Kursaal ia hutsik zegoela. Hori bai pena. ●



Maitasunaren amaiera

IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Aukera gutxi zeuden *La amiga de mi amiga* (Zaida Carmona, 2022) filma ikusteko, ekoizpen independente hau oso zinema areto gutxitan estreinatu delako. Bizkaia osoan areto bakarrean egon da astebetetz ikusgai. Ikus-entzunezkoen munduak milaka aldiz hitz egin du gizakien arteko maitasun harremanez eta gehienak ikuspuntu erromantikoaren begiradatik kontatuak izan dira. Baina Zaida Carmona zuzendariak bere lehenengo lan luzean eskaini behar zuen begirada pertsonalak pizten zidan jakinminak bultzatua, baita lagun on baten gomendioei jarraituta ere, ikustera animatu nintzen.

Filma maitasun harreman baten amaierarekin hasi da. Ezin zuen bestela izan. Hortik abiatuta komedia erromantiko ezohiko batekin egin dut topo. Aktore gehienak zuzendariaren lagunak dira, eta lokalizazioak Bartzelonako beraien ohiko topalekuak. Freskotasuna eman beharko liokeen ezaugarri horrek

hainbat unetan filmetik atera nau. Askotan pertsonaien arteko hizketaldiak eta interpretazioak gordinegiak iruditu zaizkit. Kutsu *naif* bat jabetu da giroaz filmak iraun duen ordu eta erdian, eta noizbehinkako umore momentuak ez dira nahiko izan filmaz gozatzeko.

Filmaren bertuteak, edo interesa piztu didatenak, beste batzuk izan dira. Maitatzeko eta harremanak izateko modu anitzak aztertzen dira pelikulan, elkar gurutzatzen diren hainbat emakumeren arteko harreman sexu-afektiboen bidez. Horrela, maitasun erromantikoaren gabeziekin batera, bestelako harremanen hutsune eta akatsak jarri ditu zuzendariak mahai gainean. Etiketa desberdinak dituzten maitatzeko beste modu hauek (polimaitasuna, anarkia erlazionala...) kapitalismoaren eta kontsumismoaren dinamikak guztiz irentsi dituela agerian geratu da. Gorputzen kontsumo azkar eta hotz hori bizi dugun prekarietatearekin lotu du Zaida Carmonak. Gure

LA AMIGA DE MI AMIGA

NON: Multicines (Bilbo)

NOIZ: Otsailak 8



bizimoduak eta lanak, edo honen auzentziak, gure harremanak zeharkatu eta baldintzatzen dituzte guztiz. Ardurafektiboa, errespetua eta oreka ezak distira egiten du lan honetan agertzen diren harreman gehienetan. Amodio erromantikoaren heriotzak, ustez askatu behar gintuen arren, betiko gaitzetara kondenatuta jarraitzea eraman gaituela salatu nahi izan du zuzendariak.

Zapore gazi-gezarekin atera naiz zinema aretotik. Pelikulak ez du nire gosea asetu. Filmaren beraren gabeziez gain, guztiz etsigarria da maitasun erromantikotik kanpo eredurik ez izatea eta kontsumo gizarteak harremanetarako moduak guztiz irentsi dituela jabetzea. Gizartea gure gorputzetan eta hauen arteko harremanetan islatzen da, baita sexua ekuaziotik kanpo geratzen denean ere. Moduak eta bideak badaude, egon behar dute. Burutu behar ditugun beste askapen guztiekin bezala, egunez egun sortu beharko ditugu. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA IRATI GONZALEZ JAIMERENAK, ZIRKU ARTISTAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

8	7			4	6		2	
1		2				5	7	
9					2	8		6
	3	6	2				9	
			4			1		3
	1	9			7	4	8	
3		8		5			1	9
7			6	1	3	2	4	8
	4	1	8		9	3	5	

ERRAZA


	3	4			8			
		7						8
	6		3				1	9
2	1	9						
4			8				3	
			2	5	1			
6				9			5	7
5	2				4			
7		1				8	3	

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Haritxo, filamentu. 2. Madari.
3. Ekartzen nau. 4. Oihal zati zahar.
5. Izartegia.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN BEHAR.

1				Z	I	T	I	K
2	B				R	T	E	Z
3	E	Z				L	D	I
4	L	E	H				S	U
5	Z	E	R	G				K
6	U	G	A	Z	A			

EBAZPENAK

6	4	1	8	2	2	9	3	5	7
7	9	5	6	1	3	2	4	8	
3	2	8	7	5	4	6	1	9	
5	1	9	3	6	7	4	8	2	
2	8	7	4	9	5	1	6	3	
4	3	6	2	8	1	7	9	5	
9	5	4	1	7	2	2	8	3	6
1	6	2	9	3	8	5	7	4	
8	7	3	5	4	6	9	2	1	

ERRAZA

7	9	1	5	2	6	4	8	3	
5	2	3	7	8	4	6	9	1	
6	4	8	1	9	3	2	5	7	
3	8	6	2	5	1	9	7	4	
4	7	5	8	6	9	1	3	2	
2	1	9	4	3	7	8	6	5	
8	6	2	3	4	5	7	1	9	
9	5	7	6	1	2	3	4	8	
1	3	4	9	7	8	5	2	6	

ZAILA

PUZLEA: "ZIRKUAN BALIO ASKO LANDU DAITEZKE, GARAPEN PERTSONALA GAUZATU, ETA HORI GUZTIA LEHIARIK GABE. ZIRKUAN EZ BAITAGO EZER GAIZKI, DENA DAGO ONGI EGINA."

5XS: 1. ZUNTZ, 2. UDARE, 3. NAKAR, 4. TRAPU, 5. ZERUA.

HIZKI BERAK: 1. AITZITIK, 2. BITARTEZ, 3. EZTIALDI, 4. LEHIATSU, 5. ZERGATIK, 6. UGAZAITA.

Beatriz González

ARTIBISTA



ANIMALIEN ASKAPENAREN ALDE

Txikitatik komunikatzeko eta munda eraldatzeko tresna gisa erabili du artea Gonzálezek; azken urteetan animalien askapenerako aldarrian jarri du arreta: "Misio bat bete behar duen beso bat naiz, eta xedea da gustuko ez ditudan errealitateak eraldatzea". Furgonetan margotzen du, eta horri esker toki batetik bestera eramaten ditu margolanak: "Ar-taxoan [Nafarroa] bizi nintzenean txerriak esplotatzen zituzten zentro mordo zegoenez txerriek espazio handia okupatzen zuten nire buruan". Gaur egun, Bilbo inguruan dauka aparkatuta furgoneta.

"Margotzen dudanak animaliak jateko dugun pribilegioa erasotzen du"

Komunikatzeko eta abstraitzeko erabili ohi ditu akuarelak Beatriz González margolariak eta militante antiespezistak (Galdakao, 1996). Hasieran ez zekien ongi zer margotu nahi zuen, ikusten zuena kopiatzen zuelako, baina azken urteetan animalien kontrako zapalkuntza salatzeke erabiltzen du artea: "Animalia existentziaren miseria ikustean animalien askapenaren alde margotu nahi nuela sentitu nuen".

OLAIA L. GARAIALDE HODEI TORRES

Nolatan hasi zinen margotzen?

Ez dakit oso ongi noiz hasi nintzen, baina txikitatik gustuko izan dut margotzea. Oso barnerakoia eta lotsatia nintzen lehen: margolaritza ihesbide bat izateaz gain, nahi nuena egiteko espazio seguru bat zen niretzat. Margotzen aske sentitzen nintzenez nahiago nuen gutxi sozializatu eta etxean margotzen geratu.

Zer margotzen zenuen?

Gehienetan, gustuko nituen gauzak. Baina duela sei edo zazpi urte modu akademikoan ikasten hasi nintzen, eta gehiago zentratu nintzen teknikan, koloreen kalitatean... Egiten nuena zen ikusten nituen gauzen kopia hutsak. Helburua zen nire obra sortzeko tresnak garatzea.

Zerk eraman zintuen animalien askapena aldarrikatzeke margolanak egitera?

Kopiatzen nituen gauzek ez nindutenez asetzen, beste erabilera bat

bilatzen hasi nintzen. Niretzat onuragarria izateaz gain, besteentzat ere onuragarria den artea sortu nahi nuen. Itxialdian asko hausnartu nuen horren inguruan, erreskatatutako animalia askorekin bizi nintzelako Arabako mendi batean. Animalia horien existentziaren miseria ikustean animalien askapenaren alde margotu nahi nuela sentitu nuen. Aktibista izan eta militantzia egiteko modu asko daude, eta erabaki nuen artearen bidez oihu egitea eta nire borroka antiespezismoan oinarritzea.

Uste duzu militante antiespezista izateak eragina duela zure margolanetan?

Noski. Duela sei urte utzi nion animaliak kontsumitzeari, eta oso bakarrik sentitzen nintzenez talde antiespezistetan sartzen hasi nintzen. Hasieran Piztiak taldean egon nintzen, eta aktibismo mota asko egin nituen: mahai informatiboak, performanceak plazetan eta ekintza

zuzenak, besteak beste. Gasteizko Oihu taldean nengoenean artearekin lotura zuzena zeukaten ekintzak gertuagotik ezagutu nituen. Gainera, nolabait ere ikusi dut jendearekin hitz egiteak nazkatu egiten nauela, eta nahiago dudala zer-bait margotu eta koadroei hitz eginarazi.

Horregatik esaten duzu artea erabiltzen duzula oihu egiteko tresna gisa?

Nire koadroen mezua ez da bereziki lasaia; gogorra eta asaldatzailea da. Koadro askok hitz egin dezakete, baina zenbatak egiten dute oihu? Koadro batek oihu egiten duenean igartzen da; kaletik zoazenean espero ez duzun oihu bat entzuten duzunean bezala da. Ez ditut txerri txoak alai margotzen, baizik eta oihu egiten eta begirada konkretu batekin margotzen ditut.

Unidades lanean animalien gorputz zatiak margotzen zenituen hilik; orain sortzen ari zaren margolanetan estiloa aldatu duzu. Zergatik?

Agian gehiegi oihukatzen ari nintzen. Jendeari ezinegon handia eragiten zienez beste teknika batzuk probatu nahi nituen. Orain plateretan eta katiluetan marrazten ditut animaliak, eta zerbait poetikoagoa bilatzen dut. Adibidez, txerri baten oina eta lore bat ondoan. Mezua zeharka bidaltzeko teknika da. Nire helburua da jendea hurbildu, eta gutxi-ka mezua deszifratzea. Lehen zuzenean animalia bat hilik margotzen nuen.

Zein mezua bidali nahi duzu?

Mezu enpatiko bat. Gizakiz besteko animaliek sentitzen duten sufrimenduarekin identifikatuta sentitu eta praktikara eramatea nahi dut. Jendeari zera hori eragin; izorratu. Goazen birpentsatzera nola ikusten ditugun animaliak, zein harreman sortzen ditugun, eta horiek plater apurtu batean ikusten ditugunean zer sentitzen dugun. Interpelatzeko modu bat da. Zer dago nire platerean? Zer ari naiz jaten?

Zer lortzen duzu mezua zeharka bidalita?

Adibidez, oso gordina den *Toreroen bazkaria* margolanean, bi belarri, zakil bat moztuta eta ereinotza pixka bat ageri dira oso argi azalduta. Horrekin konposizio bat egin dut, eta jendearentzat buruhauste galanta da. Oso sotila denez ez dut jendea seinalatzen. Uste dut askotan seinalatza jotzen dugula, eta hor kale egiten dugula.



"Ez ditut txerri txoak alai margotzen, oihu egiten eta begirada konkretu batekin margotzen ditut"

Errazagoa da artearen bidez mezua hori helaraztea koadro baten aurrean jendeak bestelako jarrera bat daukalako, eta entzuteko prest dagoelako.

Margotzeko euskarriak ere aldatu dituzu. Zer gehitzen dio?

Margotze ariketa horretatik distantzia hartu eta objektuei esanahia emateko modu bat da. Obra plater batean ikusten duzunean guztiz aldatzen da begirada, eta are gehiago plater hori mahai baten gainean dagoenean. Otordu bat irudikatzen da.

Zer-nolako harrera dute koadroek?

Nire obrak animaliak jateko dugun pribilegioa erasotzen duenez, jakitun naiz toki batzuetan ez daukadala lekuri. Erakusketak egiteko leku alternatiboak bilatzen ditut; ohiko lekuetan animalia eta antiespezismoaren gaia interesgarria izan arren, nirea odoltsuegia dela esaten dute. Zaila da bidea egitea, eta arteaz eta marrazteaz bizi nahi dudanez, aktibismoarako sortzen ditudan margolan- ez gain, erretratuak, ipuinetarako ilustrazioak eta pertsianak ere margotzen ditut ditut. ●

Irakurrienak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Pasa den ostiralean eman du berria Bartzelonako Udalak: *L'Avenç* aldizkariari Meritu Kulturalaren Urrezko Domina emango diote, "Bartzelonan eta Katalunian kulturaren eta ikerketaren alde egindako lana aitortzeko". Azken geltokiko aitortza da, 1977an zenbait historialari ezkertiar eta katalanistak sortutako agerkariak duela gutxi iragarri baitu 500. zenbakia publikatzearekin batera utziko diola paperean agertzeari. Frankismo osteko astinaldian Kataluniaren historia berreskuratzeke lan dibulгатibo handia egin zuen *L'Avenç*-ek; eta mende aldaketarekin batera, "maila eta anbizio europarreko aldizkari kultural" bihurtu zen, Josep Maria Muñoz zuzendariaren hitzetan. Aurtengo apirilean publikatuko da aro horretako azken aldizkaria, edizio digitalak eta aldizkariaren izen bereko argitaletxeak martxan jarraituko duten arren. Sos faltak bultzatuta hartu dute erabakia, noski: harpidetzak urri eta alekako salmenten bataila zail, kioskoak eurak ere kasik telefono-kabineen destinu petral bera izateko bidean diren garai hauetan.

Kontu hau dakart, besteak beste, euskarazko hedabide bakar batean ere ez nuelako ikusi *L'Avenç*-en agurraren berririk. Horrek pentsarazi zidan Kataluniara inbidiaz begiratzen dugunean, agian gehiegi erreparatzen diegula emaitzei –gurea baino egoera soziolin-guistiko hobe duen hizkuntza, sendotasun handixeagoko sektore kulturala–, eta gutxiegi, aldiz, horiek lortzeko erabili dituzten tresna konkretuei. Pentsarazi zidan, baita ere, guk han eta haiek hemen egiten dituztegun –bai, aditz hori asmatu egin dut– opor guztiak gorabehera, ez daukagula elkarren ezagutza handiegirik maila turistikotik harago, turismo politikoa ere funtsean turismoa besterik ez dela onartzen badugu behintzat.



Ari nintzen, beraz, zilizioa ondo estutzen zidaten ideia horiei bueltaka, okurritu zitzaidanean begiratzea nola eman zuen Kataluniako irratitelebista publikoak tamaina horretako galerearen berri. Webgunean ofiziozko notizia batez gain, hamar minutuko elkarrizketa ere egin zioten aldizkari zuzendariari *Més* 324 saioan. Hura entzuten ari nintzela, begiak beste norabait joan zitzaizkidan. Eguneke notizia irakurrien zerrendara: "300 kilo ezkur aurkitu dituzte etxe batean, okilek urte luzez bildutakoak", zioen otsailaren 10eko top albisteak.

Orduan konturatu nintzen ez garela gu bakarrik geratu Kataluniako aldizkari ikoniko baten galeraz asko jabetu gabe. Katalan askoz gehiagok klikatu zutela egun hartan Kalifornian gertatutako *randomkeria* horri buruzko albistean *L'Avenç*-en desagerpenari buruzkoan baino. Eta hedabide guztien

webguneetan onartu dugun klikaren diktaduraren kontra apo eta sugedorri batzuk jaurti nituen ahotik; madarikatu nuen "trafikoa erakarri" beharra; gorrotatu nituen clickbait titularrak; akabatuko nuen inpaktuaren jonkiren bat.

Geroxeago, sentitu nintzen gutxi gorabehera Charlton Heston *Tximinoen planeta*-ko azken eszenan den-dena ulertzen duenean bezala, gogoratu nuelako orain txinpantze klikagarriek gobernatzen duten negozio hau sortzeko ezinbestekoak izan direla kazetaritzaren historiako aurreko faseetako espezie autosuntsitzaile guztiak –prentsa horia, prentsa arrosa eta banketxeek finantzaturako prentsa guztia, besteak beste–, beti egon baitira interesak informazioaren mundua kontaktatu hutsalen feudo bilakatzeko. Kontsolamendu eskasa da, hala ere, ez baitakit inoiz egon ote diren helburua guztiz lortzetik hain gertu. ●

Otsailaren 28tik aurrera

ARGIA

OROIMEN HISTERIKOA

podkast berria **Nagore Irazustabarrenarekin**

*Historia diren istorioek txoratzen
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIA eta
audio plataforma
guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Martxoak 8,
Emakumeen
Nazioarteko Eguna

Gerentzia-postuetan emakumeak % 6a bakarrik
izatea ez da prestakuntza edo lidergo faltagatik.
Erakundeetan gizonezkoen pribilegioak eta rolak
betikotzen direlako baizik.

emakumeakgora.eus

#emakumeakgora

EMAKUMEAK GORA

emakumeakgora.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Guipúzcoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

EUEDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN ELKARTEA, EUSKADIKOA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETEN GIZARTE POLITIKARIEN SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES